



Ekainaren 27ko GART'15
jaialdirako izena ematera
deitu ditu artistak Garrobi
kultur elkarteak ▶11

Urtzi Perez Gerrikagoitia zinemagile
itzubaltzetarragaz berba egin dugu
Betiko istorioa film laburraz, euskaraz
egin duen lehenengoa ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



14. zenbakia

2015eko
apirilaren 30etik
maiatzaren 6ra arte

«Idazlearen gogoeta baino ez da liburua»



Unai Elorriaga
algortarrak
Espainiako Kritika Saria
jaso du *lazko hezurak*
eleberriagaz. ▶16



SAKONEAN ERANDIO

Gasaren kontra

Hirurogeiko hamarkadaren amaieran, erandioztarrek kaleak hartu eta protesta gogorak egin zituzten hainbat egunetan, «Gasa kanpora» goiburupean. Garai haietan, inguruko industrien poluzio izugarria eragiten zuten inguru osoan. ▶22

HERRIZ HERRI BERANGO

Nekazaritza azoka

Bertoko eta inguruetak
ekoizleak Berangora joango dira maiatzaren 3an Moreaga parkean izango den azokara. ▶4

HERRIZ HERRI LEIOA

Kontratazioak susmopean

Udal kontratazioetan
«irregulartasun zantzuak» salatu ditu EH Bilduk. Salaketa faltsutzat eta larritzat jo du EAJk. ▶5

Algortako Zubilletako ortuak egiteko lanek ezinegon sortu dute Getxoko auzokide askoren artean. ▶2

Lapiko artean euskaraz sukaldaritza-tailerrak proposatu dizkie Berbaldun egitasmoak leioaztarrei. ▶5

Erandioko Gazte Asanbladak zortzigarren urteurrena ospatuko du zapatuan. Bertaratzeko deia egin die gazteei. ▶6

Sekeko gaztetxearen bosgarren urteurrena maiatzaren 2an, zapatuan, ospatuko du Sopelako Gazte Asanbladak. ▶7

Iaz baino bisitari gehiago etorri da Getxora Aste Santuan

Getxoko Turismo Bulegoak 2.750 pertsonari arreta eskaini zien apirilaren 2tik 12ra bitartean, iaz baino %19 gehiagori. Kontsulta gehienak, 1.820, apirilaren 2tik 6ra bitartean egin ziren. Bizkaia Zubian kokatutako Aldi Baterako Turismo Informaziorako Guneak 1.001 pertsona hartu zituen eta Ereagakoak, berriz, 819. Jatorria kontuan izanda, bisitarien %19,5 EAEkoak izan ziren, %48 Espainiar estatukoak eta %15,2 beste herrialde batzuetatik etorritakoak: Europari dagokionez, Frantzia izan da bisitari gehien ekarri dituen; azken bi urteotan, Frantziako turismoa hazi da sasoi horretan. ◀

GEDren jarduerak aurrera doaz, ekimen erraldoiaren atarian

Joste Eguna igarota, ekitaldi berri bigaz dator Getxoko Gure Esku Dago. Maiatzaren 6an, eguaztenagaz, aurkezpen-ekitaldia egingo dute 19:30ean Getxoko Andra Mari kiroldegian. Bertan, ekainaren 21ean antolatuko den ekimen «erraldoiaren» berri emango dute. Aurkezpenean auzokide eza-gunek parte hartuko dutela jakinarazi dute. Halaber, hurrengo egunean, eguenagaz, erabakitze eskubidea ulertzeko hiru modu mahai-gaineratuko dituzte hiru emakumeren ikuspuntuetatik: Garbiñe Biurrun, Laura Mintegi eta Gemma Zabaleta izango dira hizlari. Hitzordua 20:00etan jarri dute, Algortako Fadura kiroldegian. ◀

Ezinegona, Zubilletako ortuen harira

Daborduko hasi dituzte lanak, eta horiek aurrera eroateko moduek auzokideengan kezka sortu dute.

Algortako Zubilleta auzoko ortuak maiatzean prest egon daitezkeela jakinarazi dute lursail horretako ugazabek. Daborduko horiek egokitzeko lanak martxan dira, eta hilabete baten buruan 50 metro koadroko 180 ortu egingo dituzte; arduradunek jakinarazi dutenez, ortu bakoitza hilero 35 euroan alokatu ahal izango da.

Ostera, ortuok egiteko lanek ezinegona eragin dute inguruko auzokideen artean; izan ere, Udalak bai-menak emateko unean ingurumen izapide legal batzuk «bete ez dituela» salatu du Auzokideok koordinadorak. Udalak, bere aldetik, legedia errespetatu duela ziurtatu du.

Kezkak auzokideen artean

Auzokideok koordinadorak baieztatu duenez, Udalak ez ditu «Euskal Herriko Ingurumenaren Babeserako 3/1998 Lege Orokorrak dioen ingurumen izapideak bete». Euren iritziz, «gehiagikeria da Udal honek bereak ez diren eskumenak hartzea». Salatu dutenez,



Izaro kalearen eta Gobelako errotaren ubidearen artean egiten dabilta lanak.

proiektua onartzeko unean, Udala ez zen Eusko Jaurlaritzara zuzendu. Halaber, Gobelak gainezka egin dezakeen gunean proiektu hau onartu izana kezkarria dela uste dute auzokideek. Udalak, bere aldetik, gauzak ondo egin dituela defendatu du: «txostenak ondo bideratu dira».

Kalte «berreskurazekinak»

Auzokideok-ek azaldu duenez, daborduko gauzatutako lanek «kalte berreskurazekinak» eragin dituzte: Zubilleta inguruko lursailetan egin gura dituz-

ten ortuen eraginez Gobelaren ibarreko «basotxo» desagertu dela salatu dute. Gobela ibaiak kaltetutako elkar-teak ere zuhaitz horien guztien «sarraskia» gogor salatu du, Izaro kale-tik Gobelako errotaren ubidera artean zeuden arbola denak, hain zuzen ere.

Jakinarazi dutenez, URAREN ingurumen planaren arabera, «11 zuhaitz mantentzea aurreikusten zen, daborduko moztu dituztenak». Era berean, ezinegona azaldu dute horrek beste-lako eraginen bat ekar dezakeelakoa, berbarako, uriolak. ◀



Ez da giro

GERMAN KORTABARRÍA IGARTUA

Etsaiak aholku

A tentzioa eman dit Munduko Diru Funtsaren ikerlan baten ondorioak: herri garatuetako %10 aberatsenen eta gainontzekoen arteko aldearen handitzea gehienbat sindikatuen ahultzeari egotzi behar zaio; izan ere (dio ikerlanak) lan hitzarmenak eta birbanatze politiken aldeko presio sindikalak erakutsia dute eraginkorrak direla desberdintasunen handitzeari galga jartzeko. Ikerlanak ez dio, horregatik, sindikatuak indartu behar direnik, baina, nahi gabe ere, jarraitu beharreko arrastoa erakusten digula esango nuke. Hara (nondik eta neoliberalismoaren tenplutik!) sindikatuen aldeko argudioak Maiatzaren Lehenaren atarian. ◀

Ciudadanos, UPyD eta VOX alderdiek alkategaiak dituzte

Santiago Sainz Robles, Ascension Viguri Axpe eta Rodrigo Vilallonga Elorza izango dira Ciudadanos, UPyD eta VOX alderdi politikoaren hautagaiak Getxon, hurrenez hurren. Familia y Vida alderdiagaz koalizioan aurkeztuko da Vilallonga Elorzaren alderdia (VOX) maiatzaren 24ko hauteskundeetara. VOXek foru hauteskundeetarako ere aurkeztu du zerrenda, eta

daborduko hautagaiak ditu Getxon, Bilbon eta Barakaldon. Alderdiaren egoitza Areetan ezarri dute.

Sainz Roblesen Ciudadanos alderdiak, berriz, EAEko hiru hiriburuetan hautagaitzak aurkezteaz gainera, Getxo bezalako herri batean ere zerrendak aurkeztea erabaki du, lehenengo aldiz. Sainz Roblesek 24 urte ditu eta Zuzenbidean lizentziatu da EHUn. ◀



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: www.aixerrota.hezkuntza.net Tf. 94 491 17 86

@AixerrotaBHI



txakoli
motaTx
ganeTx
txakolina

leku-urbe enpidea 34 (Akitanda Parke) Golem-Erandia
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



Zulotik

ARMANDO LLAMOSAS RUBIO
Kultura ondarearen teknikaria

Dantza, egunerokoa zein ikusezina

Gorlizko taberna batean, kafea edaten goizeko 09:00etan, hamaika mutil, ama, aita eta gazte korrika hasi ziren nire inguruan. Dantzariak ziren. Aratz Dantza taldeakoak autobusean kargatzen: arkuak, sokak, zintak, ez-patak, tramankuluak... Denak urduri: umeak, gazteak eta gurasoak (batez ere, gurasoak). Algotako ikastolan, astelehenero, talde bat dantatzera batzen da, eta dantzak ikasteko. Astero, Aratz, Itxartu, Itsas-argia, Berantzagi... ez dakit noraino doazen ekitaldietan parte hartzea; eta eurek ere ekitaldiak antolatzen dituzte.

Dantza historiaurretik dator kigu; izan ere, herri guztiek dantzatzen eta dantzatu dute, atabikoa bide da. Egun, agian, gure historian gutxien dantzatu dugunok gara. Hala ere, dantza ikusteko aukera asko dago: herrietan, jaietan, taldeetan... Lasaitasunez ikusita, asko aldatzen da ikuspuntua, ulertzen baituzu pauso guztiek zentzua dutela, mugimendu, tramankuluak, jantzia... Dena zentzu eta arrazoi batengatik egiten da, guk ezin imajinatu arren.

Lagunekin horretaz hitz egiten, ematen du dantzaren pertzepzioa zaharkituta, zaharra, tradizioa, lau katuren kontua, umeena dela... nahasten dugula. Aitzitik, nire lagunak ez daukate ideiarik ere; hala onartzen dute. Ez dugu parte hartzen, ez dugu ulertzen eta ez dugu ikusten dantzari buruzko ezer.

Orain, dantzaren inguruan inizatiba asko sortzen ari dira, pribatuak zein publikoak. Ondo legoke, horiek, eta gure dantza taldekideek, guri erakustea nola dantzatzen den ez ezik, zer esan nahi duten ere; eta, bide batez, nola uler ditzakegun. Dantza ez da umeen, edo lau katu eroren ideiak, guk uste duguna baino hurbilagoa baizik, askoz hurbilagoa, nahiz eta ez konturatu. ◀

Getxo

Parte-hartzearen bila

Getxoko EH Bilduk herritarren parte-hartzea sustatzeko ordenantza aurkeztu zuen azkeneko osoko bilkuran.

Demokrazia «parte-hartzailea eta Udalaren gardentasuna bermatu ahal izateko», partaidetza zinegotzigoa, herri-kontseilua, sektorekako kontseiluak, auzokako batzarrak eta herritarren parte-hartzerako bulegoa proposatu zituen apirileko osoko bilkuran EH

Bilduk; PP kontra agertu zen, EAJ eta PSE, berriz, abstenitu egin ziren.

Koalizio abertzalearen arabera, 1986tik indarrean dagoen Udal funtzionamendu guztia arautzen duen «araudi zaharkitua» berriztu eta herritarren beharrianetara egokitzeko saiakerak egin dituzte, «baina mugak eta blokeoak baino ez ditugu jaso, erantzun moduan». Salatu dutenez, horrek «herritarrei udal erabakietan izan beharko luketen kontrolerako eta erabakitze eskubidea mugatzen die». Hori dela eta, koalizio abertzaleak «Udala Zabalduta» kanpaina abiatu zuen. Horrela, parte-hartzearen in-

guruko webgune berezia sortu zuten, galdetegi zehatzak prestatu eta herritarren hainbat ekarpen eta proposamen jaso zituzten. «Hortik abiatuta, orain partaidetza ahalbidetu eta babestuko duen ordenantza proposatu dugu datorren legealdirako lan egiteko oinarri modura, eta alderdi politiko guztiakaz eta herritarraz batera, eztabaidagai izango da», azaldu dute.

Horregaz guztiagaz, herritarrek politikan eta udal gestioan «integratu edo txertatu» gura dituzte. EH Bilduko arabera, parte-hartzea ez da zerbait puntuala, «guretzat estrukturala behar du izan». ◀

Unibertsitatea, inguruko gizartearekin inplikatzeko ere bada.

erronkarako #prest

Katalin Madariaga,
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza,
3. maila.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA • MAIATZAK 9

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE • MAIATZAK 16

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI • MAIATZAK 21

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA • MAIATZAK 9

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI • MAIATZAK 16

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO • MAIATZAK 23

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIALTZA • MAIATZAK 30

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA • MAIATZAK 30

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA • MAIATZAK 23

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Berango

Bertoko ekoizleen leiho

Ohi den legez, Simon Otxandategi dantza taldeak Nekazaritza eta Artisautza azoka egingo du maiatzaren 3an.

Simon Otxandategi dantza-talde berangoztarrak urteak daroatza inguruetako nekazariak eta artisauak batzen. Hori hala, ohi legez, maiatzaren lehenengo domekan, Nekazaritza eta Artisautza Azoka antolatu dute Berangoko Moreaga parkean.

Aurtengoa XXII. edizioa izango da, eta Berangotik zein Uribe Kostatik heldutako ekoizleen produktuak ezagutu eta erosteko aukera izango dute bertaratzen diren guztiek. Gainera, aurtengo ekitaldian, Jesus Llona Larrauriren memoriale egingo dute, gogoan dutela adierazi eta gorazarre egiteko asmoz.



Berangoko eta inguruko nekazari eta artisauak euren produktuak erakutsiko dituzte.

Berangoko azokak milaka lagun batu ohi ditu urtero; izan ere, kalitate handiko eta bertoko produktuak aurki daitezke bertan.

Euskal Pastelaren txapelketa

Egun berean egingo da ospe handia

duen Euskadiko Euskal Pastelaren txapelketa; aurtun XVII. edizioa beteko du. Hala, Euskal Herri osotik gozotile ugari hurbilduko da Berangora, euren errezetak prestatu, eta pastel onenaren sariaren bila. Zorte on denei; eta bertaratzen direnei, on egin! ◀

Udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute

Uda heltzeaz dago, eta horregaz batera, umeentzako udalekuak. Udalerri askotan sasoi horretarako hainbat ekimen antolatzen hasi dira daborduko, eta Berango ez da atzean lotuko. Hala, 2001 eta 2012 artean jaiotako neska-mutilentzako udalekuak antolatu ditu Udalak. Lekuak mugatuak izango dira, eta horregatik, aurretik izena eman beharra dago; horretarako azken eguna maiatzaren 8a izango da. Erroldatutakoek 120 euro ordaindu beharko dituzte; erroldatuta ez daudenek, osteraz, 240 euro. Ekitaldi denak euskaraz izango dira eta hiru adin-tartera egokituta egingo dituzte: 2001 eta 2006 artean jaiotakoak, 2007 eta 2009 artekoak, eta 2010 eta 2012 artekoak.

Udalekuek ekainaren 29tik uztailaren 24ra iraungo dute, eta horietan hainbat ekintza egingo dituzte, berbarako: tailerrak, jolasak eta txangoak. ◀

harremanetarako: berangokultura@berango.org



Edurne Aurrekoetxea. EH BILDU BERANGO

Edurne Aurrekoetxea, EH Bilduren hautagaia

Berangok badu EH Bilduren alkategai berria: Edurne Aurrekoetxea. Hauteskundeetan koalizioaren helburua alkatetza lortzea da, «Udala eta herria kudeatzeko modua guztiz aldatzeko». Auzotarren parte-hartzea bultzatu eta hirigintza-eredua «guztiz irauli» egingo dutela adierazi dute. ◀

Ume txikientzako asteburu-pasa egingo dute Lekeitio

Udalerriko txikienek Lekeitio ezagutzeko aukera izango dute; izan ere, Berangoko Udalak kostaldeko herri hori bisitatzeko irteera antolatu du 2001 eta 2003 artean jaiotako neska-mutilentzat. Irteera hiru egunerako izango da: ekainaren 24tik 26ra arte.

Irteeran parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik eman beharko dute izena, eta maiatzaren 8a izango da horretarako azkeneko eguna. Izena emateko, kultur etxeren batera hurbildu beharko dute. Berangon erroldatuta daudenek 50 euro ordaindu beharko dituzte; gainontzekoek, berriz, 100 euro. Zozketa bidez emango dira lekuak; hala ere, Berangon erroldatutakoek lehentasuna izango dutela jakinarazi dute udal arduradunek. ◀

info+: www.berango.net
harremanetarako: 946 681 179

Egitarau luzea dakar Berango Antzokiak maiatzerako

Egitarau oparoa dakar Berango Antzokiak maiatzerako. Izan ere, ume, gazte eta ez hain gazteentzako ikuskizunakaz gozatzeko hamaika aukera egongo da. Hala ere, oraingo honetan, ikuskizun bi baino ez ditugu goraipatu, hurbilen ditugun egunoi dagozkionak, maiatzaren 2an eta 3an eskainiko dituztenak, hain zuzen ere. Lehenengo egunean, *Los juegos del hambre*. En llamas 12 urtetik gorakoei zuzendutako pelikula proiektatuko dute, gaztelaniaz eta doan. Hurrengo egunean, domekan, berriz, *Lucius Dumben berebiziko bidaia* haurrei begirako animazio-filma eskainiko dute. Emanaldia euskaraz izango da eta sarrera doan. Film horretan, Lucius izeneko pertsonaia Lur planeta zoriontsu bihurtzeko tresnaren bila joango da. ◀

info+: www.berango.net

Nagusientzako jarduera ugari antolatu dituzte maiatzerako

Udalak jubilatuei begirako hainbat ekimen prestatu du datozen egunetarako; Bilboko Arte Ederretako Museora bisita, berbarako.

Eguraldi onaren etorreragaz, «nagusien osasuna, ongizatea, jarduera fisikoa eta kultura hobetzeko» programa bat eskaintzen hasi da Berangoko Udala. Horretarako, «Baliabideak ezagutzen» zikloa abiatu dute. Horren bitartez, nagusiek herrian bertan eskura dituzten aisialdiko aukeren berri izango dute. Arduradunek jakinarazi dutenez, hilean behin gutxienez ziklo horretako saioen bat antolatuko dute. Daborduko jarduera bi egin dituzte: apirilaren 19an herri-martxa bio-osasungarria egin zuten. eta parte-hartzaileek Moreaga parkearen ondoan dauden gimnasiako makinak erabiltzen ikasi zuten; Izaskun Zubiaur Kultura arduradunak azpimarratu duenez, «orain, eguraldi ona iritsiko denez, jubilatuek Berangon bertan dituzten erremintak ezagutzea

ezinbestekoa dela uste dugu. Erabiltzeko modua jakitea ere garrantzitsua da, bai euren ongizaterako, baita herria eta zerbitzuak hobeto ezagutzeko ere, inguruneaz gehiago gozatu ahal izateko». Horrez gainera, zahartzearen gaineko berbaldia eman zuten apirilaren 22an.

Maiatzean, barriz, etxeko segurtasunaren eta bide-segurtasunaren inguruko hitzaldiak antolatu dituzte. Horrez gainera, aurrerantzean, Serantes mendira, Oma basora eta Berangoko bide megalitikora irteerak ere egingo dituzte; eta kultura ere landuko dute. Ildo horretan, maiatzaren 7an, eguna, Bilboko Arte Ederretako Museora joango dira. Maiatzaren 15ean, barikuagaz, berriz, Getariara joango dira, Balentziagaren museoa bisitatzerako. «Nagusien Etxeak antolatu ditu aurreikusitako jarduera guztiak. Hemen pertsona nagusi asko batzen dira, eta agenda antolatzeko orduan, haiek proposatutako ekimenak kontuan izaten ditugu. Ekimen parte-hartzailea eta pertsona hauentzako aberasgarria izatea nahi dugu, euren egonezinak kontuan izanik», adierazi du Anabel Landa Berangoko alkateak. ◀

Leioa

EH Bilduk «bezerokeria-sarea» ikusten du udal kontratazioetan

Udal hauteskundeetarako hilabete eskasa falta denean, Leioako EH Bilduk udalerrri horretako udal kontratazioak susmopean jarri ditu, Udalaren eta EAJren erantzun gogorren artean.

Koalizioak martitzenean salaketa-akusazioak aurkeztu zituen Leioako Udalak «behin eta berriro» kontratatu ditu Jon Loizaga Kultura eta Kirol zinegotzi ohiagaz lotutako sozietateak; bai berak «sortutako edo parte izandako enpresak», bai beragaz «erlazio komertzialak zituen enpresari baten enpresak». Horrez gain, kontratazio horiek «era pribatu eta inolako kontrol publikorik gabe» eta Loizagak «zuzentzen zuen udal sailetik» egin direla gaineratu zuten. Salaketa horri eusten dioten balizko frogak euren webgunean jarri dituzte ikusgai. Gainera, beste alderdiei auzi horren gainera mahai-inguru publikoa egitea eskatu diete.

Hiru milioi euroko kontratuak

Datu horien arabera, Leioako Udalak hainbat urtetan hiru milioi euro baino gehiago ordaindu zizkien Hirurok Zerbitzuak eta Alai Zerbitzuak sozietatei zein Hostelpark 2004gaz lotutako beste enpresa bati, hurrenez hurren Kultur Leioa, Gaztegunea eta Sako-netako gimnasioa kudeatzeagatik. Arkaitz Fullaondo EH Bilduren zinegotzi eta alkategaiaren iritziz, «kontratu horien esleipenean irregulartasun

zantzuak egon daitezke» eta baliteke hitzarmen horiek «Leioako EAJko hainbat kidek martxan jarritako bezerokeria sare baten parte izatea».

Koalizioak Mari Carmen Urbietak alkate eta EAJren alkategaiaren aurka ere egin zuen bere adierazpenean. Euren ustez, Urbietak zein Leioako EAJk «erabateko sostengua ematen diote ustelkeria eta bezerokeria kasuetan sartuta dauden EAJko militante eta kargu publikoei, askotan garrantasuna martxan jartzeko ekintzak oztopatuz». Gainera, gogoratu zuten Leioako Udalbatzak Pinosolo auziagatik Loizaga gaitzetsi zuen arren, zinegotzi ohiak «gaur egun Leioako EAJko militante izaten jarraitzen» duela. EH Bildu zantzu horiek Fiskaltzaren eskuetan jartzea aztertzen dabil.

«Lan zintzo eta zorrotza»

EH Bilduri erantzuten lehena Leioako Udalak izan da. Martitzenean bertan, ziurtatu zuen kontratazioak «aplikagarria den legearen arabera egiten» direla, kontratazio-mahai bakoitzean urrats ezberdinak onartu ostean. Bertan, udal iturrien arabera, teknikariak, Udal Gobernua eta oposizioko alderdi politikoen ordezkariak daude, EH Bil-



Karmelo Sainz de la Maza alkate ohiak «salaketa faltsu eta larriak» jo zuen EH Bilduren akusazioa.

du izan ezik. Izan ere, koalizioa «bere erabakiz» ez doala azpimarratu zuen Udal Gobernuak. Bestela, jakingo eiluke «Leioako Udalean zorrotzasunez eta zintzotasunez lan egiten» dutela, «leioaztar guztiak gure jardueraz harro egoteko moduan». Zentzu horretan, aipatutako «kontratueteriko bat ere ez dela kaltegarria» baieztatu zuten.

Kontran, Udalak «penagarritzat» jo zuen EH Bilduk kontratazio publikoen harira «arduragabe zikintzea udalerriko pertsona eta enpresen izen ona, errealtateagaz bat ez datozen baieztapenen bidez». Are gehiago, «gezurak, gezurrak dira, nahiz eta hamaita aldiz errepikatu» esanez laburbildu zuen bere erantzuna Udalak. Gainera, udal erakundearen ustez, «soilik admi-

nistratio publikoen funtzionamendua ulertzen ez dutenek erabil dezakete demagogia, horren gai garrantzitsuetan».

«Salaketa faltsu eta larriak»

Udalak ez ezik, Leioako EAJk ere bere erantzuna eman zion, atzo eguaztenean, EH Bilduri. Karmelo Sainz de la Maza alkate ohiak EH Bilduk egindako «salaketa faltsu eta larriak» kritikatu zituen. Alderdikidez inguratuta, «harro» agertu zen Leioako EAJren emakumeek eta gizonek «herriaren alde» egindako lanaz eta gezurtatu zuen Loizagak kontraturik inoiz esleitu duenik, «eskuduntzarik ez» baitzuen. Azkenik, orduan Udal Gobernuan zegoen Eusko Alkartasunari bere jarrera agertzeko eskatu dio.

Zientzia eta gastronomia dira Herriguneraren proposamenak

Apirilean eta maiatzean, ekimenez beteta dator Herrigune Leioa. Besteak beste, Zientzia Kalera eta Pintxo Leioa proposatu ditu Solasgunek eta Leioako Udalak sustatutako hiritarren hezkuntzarako elkarguneak. Gastronomiazaleek sukaldaritza, trikimailuak, tresnak eta abarrak elkarregaz ikasteko aukera izango dute apirilaren 30ean eta maiatzaren 7an, Iturriondoko kaleko Laborategian, 17:00etatik 19:00etara. Edozeinek parte har dezake, aurretik izena emanda.

Zientzia Kalera ekimenaren bidez, leioaztarrek maiatzaren 8tik ekainaren 13ra zientzia ikasteko zein ikasitakoa partekatze bost saioz gozatu ahal izango dute.



Agenda 21ez jardun zuten umeek. © SOLASGUNE

Umeak Udalbatzan

Bestalde, herrian landu ostean, apirilaren 23an, Leioako zazpi ikastetxetako umeek mugikortasunaz hainbat aholku eman zituzten Udalbatzan.

Info+: Herrigune.org/info@herrigune.org/944029780

Txakolin-ibilbideaz gozatzeko azken aukera, egunean

Leioako Merkatarien Elkartek udalerriri osora zabalduta egunotan txakolinean oinarritutako ibilbide enogastronomikoa; ostalari guztiek parte hartu ahal izan dute. Egunean amaituko den ibilbide horretan, Elkar-teko bazkide den Leioako merkataritza-establezimendu bakoitza Bizkaiko Txakolinaren upategi bat ordezkatu eta txartelak oparitzen dabil, erosketarako bakoitzagaz, txakolina eta pintxoak dastatzeko zein botilak, bazkariak edo afariak lortzeko. Gainera, Bizkaiko ardo horien bilduma zabala dastateke, txakolinean oinarritutako pintxo eta menuakaz batera, eta sariak emango zaizkie ibilbidea amaitzen duten pertsona guztiei.

Berbaldun ekimenak sukaldaritza-tailerrak antolatu ditu

Leioako Berbaldun euskaraz mintzatzeko egitasmoak *Lapiko artean euskaraz* goiburupeko tailertxoak antolatuko ditu Ondiz dorrean, udalerriko euskaltegi biakaz batera. Josu Esnaola ekimeneko dinamizatzaileak adierazi duenez, «helburua bikoitza da: batetik, plater batzuk kozinatzen ikastea, eta, bestetik, euskarazko harremanak bultzatzea. Horregatik sukaldetan jardun ostean, prestatutako platerak dastatuko ditugu lagunarteko giro atseginean». Maiatzaren 8an, taloak egiten ikasiko dute; 15ean, *guacamole*-a eta *quesadilla*-k; eta 22an, *cake pops* postreak. 12 leku daude eta izena aurretik eman beharra dago.

Info+: berbaldun.leioa@gmail.com / 688 850 129

Erendio

«Gure ekarpen nagusiena gazte kuadrillak saretzea izan da»

Zortzi urte beteko dira laster Erandioko gazteek antolatu eta bizirik jarraitzen duen Erandioko Gazte Asanblada (EGA) eratu zutenetik; maiatzaren 2an ospatuko dute urteurren hori.



Azken urteotan gaztetu egin da Erandioko Gazte Asanblada.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Kalezulo gaztetxeari bizitasuna ematen dioten neska-mutil gehienek bi eta lau urte bitartean baino ez daramatzate EGAn, asanbladan belaunaldi-erleboia egin baitute. Urteurrenaren bidez, gazteagoak direnengana hurbildu eta saretzea gura dute.

Zer ekarpen egin dio EGAK herriari zortzi urte hauetan?

Herrian gazteok mugitzeko daukagun espazio apurretarik bat da: gauzak era ezberdin batean eraikitze eta gazteei eta gazte-esparruei bizitasun

pixka bat emateko. Ekarpene handienetako bat da gazte-kuadrillen artean sortutako harremana. EGAK gazteekin lanketa egiten hasi aurretik, ez zegoen gazteen artean herri izaerarik. Hori litzateke ekarpenik nagusiena.

Zein da zuen balorazioa?

Ona. Herriko jende ezberdina bildu egin du urteko zenbait data zehatzetan, eta horrek eratu du herri izaera bat. Balorazioa positiboa da. Momentu batzuetan hobeto funtzionatu dugu, beste batzuetan txartoago, edo gehiago islatu da egindako lana herrian; baina Gazte Asanblada herrian egoitea positiboa izan da beti. Positiboa da

beti. Eta euskalduna izatea eta beste balore batzuetan eraikitzea beti da positiboa. Egotea, gaur egun, bada lana eta ahalegina.

Zein da urteurrenaren helburua?

Lehenengo helburua da ospatzea asanbladak zortzi urte daramatzala bidaian. Bestalde, azken urteotan egon da aldaketa bat asanbladan bertan. Hasieran zeudenak jada ez daude eta gu gara erreleboa. Hasierakoek egin zituzten harreman batzuk momentu hartan gazte zirenakaz, baina orain igartzen dugu zelan gazteagoak direnakaz badagoela hutsune bat eta data honi begira egin dugun lanketa nahi-

VIII. urteurrena

Apirilak 30, eguna

19:00 Bertso-aborda-gaia, Itsasadarrean, Jone Larrinaga, Arkaitz Estiballes, Inazio Vidal eta Imanol Uriagaz. Euria eginez gero, gaztetxeanegingo da.

Maiatzak 2, zapatua

11:30 Gazte-olinpiadak, plazan. Oroigarriak eta sari bereziak.

14:00 Bira trikitilariakaz, Koliseon.

15:00 Herri-bazkaria, plazan. Menu beganoa ere bai. Txartelak Betilagun tabernan (5 euro; kamisetagaz, 10 euro; eta bazkaria, kamiseta eta kontzertua, 12 euro).

18:30 Poteoa Eguenero elektrotzarangagaz, Eguzenetik.

19:30 Olinpiaden azken proba, Jado kalean.

21:00 Kontzertua gaztetxean: Selektah Stepi bad sound system, The Rise, El Baston de la Vieja eta Asuran Soinu Systema. Sarrerak, 3 euro. Afaltzeko aukera izango da.

ko handia izan da, orain gazteak diren kuadrilla edo talde horiei ailegatzeko. Haien txinparta piztu gura dugu.

Iaz ohartarazi zenuten Kalezulo gaztetxea hutsarazteko arriskuan zegoela. Zein da gaur egungo egoera?

Ez dugu jaso beste berririk. Egonkor gaude. Inork ez digu ezer esan, inor ez da etorri.

Azpimarratzeko zerbait?

Maiatzaren 2an urteurrena dela eta, Erandio Handiko (Plentziatik Bolueta- eta Ezkerraldera) gazteak eta gazte ez direnak etortzera animatzea; gonbidatuta daude, gazteak batez ere! ◀



Saltsan

AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA
Herri-langilea

Euskalduna, ez behartsua

Poltsa handi bat jostailuz betetzen harrapatu du Anerrek aita, etxean enbrazuan daudela eta birziklatzera eroateko asmotan dabilela. Ez dio grazia-rik egin; bereak dira eta beretzat nahi ditu, zahartuta dauden arren. Semea konbentzitu nahian hasi da orduan aita, eta jostailuak behartsuei emango dizkietela azaldu dio, Hansel eta Gretelen ipuinarekin ikastolan behartsuen gaia landu dutela aprobetxatuz. Eta pentsatzeko eskatu dio; agian, egunen batean, bera ere behartsua izan daitekeela, eta zer ona litzatekeen besteren batek berari jostailuak oparitzea. Orduan, Anerrek, hauxe erantzun dio: «*ni ez naiz behartsua izango. Ni euskalduna naiz*». ◀

Oinezko bidea eta semaforoa planifikatu dituzte Axpen

Erandioko Udalak semaforoa eta oinezkoentzako bidea ipiniko ditu Axpeko Erribera hiribidean, Ibaizabalgo errepidea eta Astrabuduko sarrera batzen diren lekuan. Horren helburua da oinezkoen segurtasuna hobetzea. Udalak aitortu duenez, bertako oinezkoen zubia «ez da eroso, ezta irisgarria ere zenbait oinezkoentzat». Horregatik, bertatik pasatzen diren batzuek «errepide hori era irregular eta

arriskutsuan» zeharkatzen dute. Segurtasuna handitzeko, oinezko bidearen alde bietan, espaloi tarte zatia jarriko dute. Gainera, hesi batek oztopatuko die oinezkoen araututako tartetik kanpo galtzada igarotzea. Udala Aldundiaren baimenaren zain dago obra lizitatzeko, errepide biak foralak baitira. Proiektua diseinatu aurretik, autoak eta oinezkoak grabatu zituzten, bertako trafikoa ezagutzeko. ◀

Sopela

Bost urte Sekeko errota zaharra biziberritzen

Sopelako Gazte Asanbladak Sekeko Gaztetxearen bosgarren urteurrena ospatuko du maiatzaren 2an, Udaletxe plazan. Egun osoko egitaraua prestatu dute.



Dozenaka gazte elkartzen dira urtero Sekeko Gaztetxearen urteurrenean.

Daborduko bost urte igaro dira Sopelako hainbat gaztek Sekeko errota zaharra okupatu zutenetik, eta urtemuga hori ospatzeko asmoz, maiatzaren 2an egun osoko jaialdia antolatu du bertako Gazte Asanbladak.

Jarduerak goizeko 11:30ak aldera hasiko dira, Udaletxe plazan. Plazartu elkarteak azoka jarriko du, eta bertan jaki ekologikoak eta eskuz egindako produktuak erosteko aukera egongo da. Azoka dagoen bitartean, umeentzako tailerrak antolatuko dituzte plazan bertan. 14:30ean Udaletxe plaza alboko berdegunean, talde-argazki erraldoia aterako dute.

Herri-bazkaria 15:00etan izango da, eta aurten menu berezia prestatuko dute: bazkari mexikarra. Txartelak aldeztatik zazpi euroan erosi beharko dira, honako lekuetan: Iru-bide taberna (Larrabasterra), Laiak taberna, Sekeko gaztetxea eta Eztabaida-gunean (Algorta). Herri-bazkaria doazenez edalontzia eta sardexka etxetik eroan beharko dituzte, gazte asanbladak bazkarietan sortzen den

hondakin-kopurua gutxitu gura delako, SHK Sopelako Hondakinen Kontseiluagaz bat egingez.

Arrastian ere egongo da zer egin Sopelan. Bazkalostean ohitura bihurtu den bingoa egongo da, eta 18:00etan gazteak kalez kale ibiliko dira erdigu-neko tabernetatik poteoan, txaranga baten laguntzaz. Egitaraua biribiltzeko, Udaletxe plazan egongo den agertokian kontzertuak egongo dira: Cacas Blancas, Joxe Replay eta Nebula Selekta taldeen emanaldiak. ◀

info +: www.sopelakoga.com

Egitaraua

Maiatzak 2, zapatua

11:30 Azoka, Plazartu elkartearen ekimenez: produktu ekologikoak eta eskuz egindakoak.

12:00 Umeentzako jarduerak.

14:30 Argazki erraldoia.

15:00 Herri-bazkari mexikarra. Txartelak zazpi euroan salgai, Iru-bide, Laiak, Sekeko eta Eztabaidan.

18:00 Poteoa tabernaz taberna, txaranga bategaz lagun dute.

20:30 Kontzertuak: Cacas Blancas, Joxe Replay eta Nebula Selekta.

Udalekuetako izen-emateak maiatzaren 2an zabalduko dira

Sopelako Udalak aurtengo udalekuek izena emateko epea zabalduko du maiatzaren 2tik 31ra arte, biak barne. Aurreko urteetan legez, umeek lau egitasmo izango dituzte aukeratzeko: Udaleku Irekiak, Surf Udalekuak, Summer Camp eta Musikaz Blai. Izena emateko, Sopelan errolatua egon beharra dago.

Udalak azaldu duenaren arabera, programa bakoitzak helburu ezberdinak ditu. Batetik, Surf udalekuek, barbarako, «gazteen artean euskaren erabilera bultzatzea dute helburu, erakargarriak diren ekintzen bidez». 13 eta 17 urte bitarteko gazteek eman ahal izango dute izena egitasmo horretan.

Bestetik, Musikaz Blai programan, 4 eta 12 urte bitarteko umeek kantua, mimika musikala, dantza eta antzerkia jorrazteko aukera izango dute. Summer Camp udalekuen asmoa, berriz, ingelesaren ezagutza indartzea izango da; kasu honetan, 12 eta 14 urte bitarteko gazteen artean. Azkenik, udaleku irekietan 4 eta 11 urte arteko umeek mota askotako jarduerak landuko dituzte, lau txandatan.

Udaleku bakoitzaren prezioa ume kopuruaren arabera izango da. Oinarrizko errenta jasotzen duten lagunek ere deskontua izango dute. Izen emateak Kurtzion, udaletxean eta Sopelarin bulegoan egin ahalko dira. ◀

Denok Bat-en hautagaitza babestu du Ahal Dugu-k

Sopelako Ahal Dugu-ren zirkulua Seuren izen horregaz maiatzaren 24ko udal hauteskundeetara aurkeztuko ez den arren, zirkuluak modu ofizialean babesa agertu gura izan dio Denok Bat hautagaitzari. Aipatutako zerrendaren hautagaitza apirilaren 26an aurkeztu zuten, Kurtzio kultur etxean egindako ekitaldian. Sopelako zerrendagaz batera, Berangoko eta Urdulizko alkategaiak ere aurkeztu zituzten.

Sopelako kasuan, zerrendaburua Jon Andoni Gerediaga Bilbao izango da, eta hurrengo postuetan Fernando Hurtado Lopez, Manuela Ruiz Vivanco eta Jose Maria Rivero Velasco ager-



tzen dira. Ahal Dugu-k argitu duenez, euren zirkuluaren babesa duen hautagaitza «bakarra» Denok Bat zerrendarena izango da: «gure ideiak eta politika ulertzeko modua defendatzen dutenen alboan egongo gara». ◀

info +: www.facebook.com/podemossopela

OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baloak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoliarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

Especialistas en desayunos abrimos desde las 07:00h. y 08:00h. los fines de semana y festivos

www.cafebarzuazua.com

Iturgitxi 13, PLENTZIA
Tf. 94.677.31.28

Café-Bar Zuazua
Plentzia

ALURREN

GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Tipa Kalea 1 (Udaletxe aurrean)

Gosariak, Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!

Bentatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

Hartzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Garzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
I k a s t o l a

Barrika

Ekimenez gainezka dator maiatza

Adin guztiei begirako egitaraua prestatu du hilabete osorako Barrikako Udalak: gazteentzako surf eta skate saioak, umeentzako jolasak, udaberriko kontzertu koralak...



Beste hainbat jardueren artean, *sliceline*-an aritu ahal izango dira gazteak.

Maiatzaren hasierak beroa ekarri ohi du. Hori dela eta, kale-ekimenak prestatzen hasi dira hainbat lekutan, berbarako, Barrikan. Udalak egitarau oparoa prestatu du hilabete osorako. Hasteko, maiatzaren 9an eta 16an, 12 eta 17 urte arteko neska-mutilentzako surf, *sliceline* eta skate saioak egingo dituzte. Aipatutako bi zapatu horietan egingo dituzte jarduera horiek, 17:30etik 20:30era; eta maiatzaren 8a baino lehen izena eman beharko dute parte hartu gura dutenek.

Bestalde, Udalak beste hainbat ekimen antolatu ditu maiatzerako. Maiatzaren 9an, zapatuagaz, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute; hala, 5 eta 11 urte arteko umeentzako ginkana egingo dute, 11:00etatik aurrera, liburutegian. Maiatzaren 15ean, barikuagaz, 12 eta 17 urte arteko gazteentzako sukaldaritza tailerra egingo dute Gure Ixerdia elkartearen egoitzan, 17:30etik aurrera. Horretan parte hartzeko, izena eman beharko da. ◀

info+: www.barrika.eu

harremanetarako: liburutegia@barrika.net

Egitaraua

Maiatzak 4, astelehena

Banda eta DJ Lehiaketa. Izena emateko azken eguna.

Maiatzak 9, zapatua

11:00 Umeentzako IV. Ginkana, liburutegian. Aldez aurretik izena eman beharra dago.

17:30-20:30 12 eta 17 urte arteko neska-mutilentzako surf saioa. Aldez aurretik izena eman beharra dago.

Maiatzak 15, barikua

17:30 Sukaldaritza tailerra, 12 eta 17 urte arteko gazteentzat, Gure Ixerdi elkartearen egoitzan. Aldez aurretik izena eman beharra dago.

Maiatzak 16, zapatua

17:30-20:30 12 eta 17 urte arteko zuzendutako skate eta slickeline saioak. Aldez aurretik izena eman beharra dago.

Maiatzak 22, barikua

18:00 Familia-zinema, Ander Deuna kultur aretoan.

Maiatzak 29, barikua

20:00 Udaberriko kontzertu koralak, Andra Mari elizan.

Gorliz

Artisau-azoka eta txori kantarien txapelketa

Aste akabu honetan, maiatzaren 2an eta 3an, Gorlizko auzokideek badute zer egiterik; izan ere, udalerriak bertako artisauen azoka eta tradizio handiko txori kantarien txapelketa hartuko ditu, zapatuan eta domekan, hurrenez hurren.

Lehenengo eta behin, zapatuan, tokiko eta inguru hurbileko herrietako artisauak euren produktuak erakutsi eta salduko dituzte San Pedro enparantzan, goizeko 10:00etatik arrastiko 20:00etara. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, euria eginez gero, azoka Ibarreta plazan egingo lukete.

Bigarrenik, hurrengo egunean, domekagaz, Txori Kantarien Txapelketa hartuko du Gorlizek, beste urte batez. Tradizio handiko txapelketa da hori, eta aurtengoa 33. edizioa izango da. Hitzordua goizeko 09:00etan ipini dute eta, antolatzaileek iragarri dutenez, lehiaketan parte hartu ahal izateko, izena emateko epea goizeko 8:30ean zabalduko dute. Eguraldia lagun izanez gero, txapelketa Ondarganen izango da. Okerrera egin eta euria bada, osteria, frontoian egingo dute txori kantarien txapelketa. ◀

Info+: www.gorliz.net

EH Bilduk Gabi de la Maza aukeratu du alkategai izateko

Datorren maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako Gorlizko EH Bilduk badu hautagai berria: Gabi de la Maza. Beragaz batera, lanerako prest eta esparru desberdinetan jardundako pertsonez osatutako hautagai-zerrenda osatu dutela azaldu du koalizio abertzaleak, eta, adierazi duenez, «udaletxetik eraldaketa politiko eta sozialerako tresna bilakatzeko» asmoagaz aurkeztuko dira. ◀



Lemoiz

Umeentzako euskarazko udalekuak egingo dituzte

Lemoizko Udalak euskarazko udalekuak jarriko ditu martxan beste urte batez. Horien helburua da 3 eta 5 zein 6 eta 16 urte bitarteko neska-mutilek aisialdian euskaraz bizitzeko eta gozatzeko aukera izatea. Ume zein gazteentzako udalekuak hurrengo ekainaren 22tik uztailaren 17ra bitartean egingo dira, goizeko 09:30etik eguerdiko 13:30era arte. Horietan parte hartzeko, interesa dutenek aldez aurretik izena eman beharko dute izena. Horretarako epea maiatzaren 4an hasi eta 15ean amaituko da. ◀

Info+: www.lemoiz.eu

Harremanetarako: euskara4@uribekosta.org

Plentzia

Uda giro onean igarotzeko, udalekuak martxan



udalekuak. Sasoi horretan neska-mutit txikiak jarduerak ugariz gozatzen aukera izango dute, besteak beste, Plentziako Udalak antolatutako udalekuakaz. 2002 eta 2011 artean jaiotako neska-mutilei zuzenduta daude, eta izena ematen dutenek esaterako surfaz, txangoez, sukaldaritzaz eta beste hainbat tailerrez gozatu ahal izango dute. Udaleku horietan parte hartzeko, aldez aurretik izena eman beharra dago, maiatzaren 6a baino lehenago, Goñi Portal kultur etxean. ◀

info+: www.plentzia.org
harremanetarako: 946 775 541
kultura.plentzia@bizkaia.org

Plentzia

Udalak baimenak eskatu zituen



Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren baimena behar zuen BGPK.

Zabaldutako polemikaren aurrean, Udalak hainbat txosten plazaratu ditu geltokiaren kudeaketaren nondik norakoak azaltzeko.

Plentziako geltokiaren inguruko obren polemiken aurrean, Udalak egoera argitu behar izan du. Apirilaren 17an, Udalak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren idazki bat jaso zuen; Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) abiatutako lanak geldiarazteko agindua jasotzen zuen. Idazkiaren arabera, inguru horretan egin gura diren «jarduketa» guztiek Ministerioaren baimena behar dute.

Udalak zabaldutako dokumentuen arabera, behin eta berriz eskatu zizkion BGPK kaltetutako Organismo Sektorialen baimenak, besteak beste:

Bizkaiko Foru Aldundiarena, URAre-na eta Euskal Herriko Itsasertz-Mugar-tearena. Lehenengo komunikatuan Metro Bilbaoren Trenbide Zerbitzuaren Ordezko Autobusaren Bide Exekuzio Proiektuaren Txosten teknikoa azaltzen da; era berean, egin beharreko lanak zehazten dituzte komunikatu horretan: autobus horretarako bide berria egitea, geltokiaren ondoko espaloia egitea, aparkaleku berria egitea, bide berria eta Geltoki kalea sare bidez banatzea eta obrak kaltetutako gunek berritzea. Bigarren komunikatu batean, Geltoki kalean aparkalekua egiteko proiektu teknikoa ez dute urbanizatzeko proiektutzat hartzen. Halaber, BGPK aurrera eroandakoa denez gero, obra publikoa dela argi uzten dute.

Bestalde, Plentziako EH Bilduk, bere aldetik, BGPKren kudeaketa «eskasa» salatu du. ◀

Urduliz

Lehenengo fasea amaituta, aurrera doaz trenbide-pasaguneko lanak

Metro Bilbaoko sarean dagoen azken pasabide arrisku-tsuak bereak eman ditu, da-borduko. Izan ere, Urdulizko lanek lehenengo fasea amaitu zuten aurreikusitako epean. Pasa den apirilaren 6rako, norabidea aldatzeko erabiliko den *bretelle* edo trenbide gurutzatua ezarri zuten 100 beharginek, Sopelako tailerren parean. Horrek bermatu zuen Sopelako geltokia lanen eragine-tik kanpo uztea. Ordutik, lanek martxa egokia jarraitu dute. Bitartean, Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) hiru

erabaki hartu zituen apirilaren 21ean egindako bileran. Urdulizko trenbide-pasagunea ezabatzeko eta geltokia lur azpian jartzeko asmoz, BGPK baimena eman zuen Euskal Trenbide Sareak (ETS) lizitaziora aterako dituen instalazio elektrikoei eta katenariari dagoz-kien proiektuetarako, 2,78 milioi euroko irteerako kopuruagaz (BEZ barne).

Kilometro erdiko katenaria

Instalazio elektrikoaren aurrekontua 1,4 milioi eurokoa da, eta horren barruan ondokoak sartzen dira: Urdulizko gel-

tokian energia-transformaziorako zen-troa taxutzea, banaketa-koadroak, sasituneleko eta geltokiko argiak, suteen aurkako babes-sistema, eta urrutiko agingailuak. Bestalde, sasitunelera-ko katenaria zurrin bat eta zerupeko bide-tarteko katenaria arrunta (bien artean 543 metro) hornitu eta munta-tzearen gastu-aurreikuspena 1,38 milioi eurokoa da. Azkenik, hirugarren kontratuan, Sopela eta Plentzia arteko bidearen seinaleztapen-sistema ere sartzen da. Horren aurrekontua 3,5 milioi eurokoa da. ◀

Udan amaituko dituzte Antsonekoa plazaren lanak

Urdulizko Antsonekoa plazako gu-
ne estalia handitzeko beharrak udan amaituko dituzte, ezustekorik ezean, lanak aurrera baitoaz aurreikuspenen arabera. Urdulizko Udalak 225.000 euro inguru bideratu ditu umeentzako jolaslekua babesteko lanotara. 2013ko hasierako beharrakaz batera, 400.000 euro inbertitu dituzte, guztira. Egitasmoaren helburua da «umeei eta, batez ere, eurakaz dauden familiei oraingoa baino handiagoa den espazio estalia eskaintzea, eroso egon daitezen eguraldia ona ez denean». ◀

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Iacofris
MARKA GUZTIAK
24 ORDUTAN ERANTZUNA
3 HILABETEKO GARANTIA
IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 - KASUNE 18 - ALGORTA
www.iacofris.es - sat@iacofris.es

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gubxi denik ez prentsa"
Prentsa - Frutitu lehorak - Aldizkariak - Libxerriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

berezi
Hamburguesas
Bocatas
Ogitarteak

Sandwiches
Platos combinados
Sanwichak
Plater konbinatuak

SABINO ARANA, 34 48640 - BERANGO
PEDIDOS: 946 681 064 (PARA RECOGER EN LOCAL)

irati
Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

OPARIK MODA GAZTEA

Uribe Kosta

Badoaz Herri Urratsera

Sopelan, Plentzian eta Gorlizen, maiatzaren 10ean Senperera joateko autobusak antolatu dituzte.

Urtero legez, maiatzaren bigarren domekan, Herri Urrats festa egingo dute Senpereko aintziraren inguruetan. Hala, maiatzaren 10ean Euskal Herriko milaka euskaltzale Lapurdira bertaratu dira Seaskako ikastolei babesa emateko. Hala, Senperera hurbiltzeko autobusak antolatu dituzte Sopelan, Plentzian eta Gorlizen, Plentzian eta Sopelan egun horretarako. Sopelan, autobusak bi irteera egingo ditu, lehenengoa Larra-basterrako Urgitxieta plaza ondoan, 08:00etan, eta bigarrena, Sopelako elizaren ondoan, 08:15ean. Gorlizen, 08:00etan ipini dute hitzordua, Euska-



Maiazaren 5era arte egongo da autobusetan izena emateko aukera. © GORKA JAKOBE PALAZIO

diko Kutxa ondoan; Plentzian, oster, 08:15ean, Charter supermerkatu parean. Buelta, berriz, arrastiko 20:00ak eta 20:15ak inguruan izango dela aurreikusi dute.

Joateko asmoa dutenek alde zuzenetik izena eman beharko dute, maia-

tzaren 5a baino lehenago, herri bakoitzeko kultur etxeetan. Erroldatuek 5 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 8 euro.

Halaber, adin txikikoek gurasoen baimena sinatuta eroan beharko dute, azaldu dutenez. ◀

Langileek Astrabudua hartuko dute Maiazaren Lehenean

Maiazaren Lehenagaz, sindikatuak eta langileek kaleak bere egingo dituzte, borrokan diren langileen ekarpena aitortzeko eta aldarrikatzeko. Bere aldetik, LABek eskualdeak betetzeko deia luzatu du. Hala, martxa-manifestazioa egingo dute Astrabudutik abiatuta. Hitzordua 12:00etan ipini dute, Josu Murueta plazan. Ondoren, Erandioko kaleak aldarrikapenez beteko dituzte Udaletxeko plazan martxari amaiera emateko, ekitaldi batez. Jakinarazi dutenez, aurtengo Maiazaren Lehena berezia izango da, sindikatuaren sorreraren 40. urteurrena ospatzen ari direlako. «Egindako ibilbideak eman digun eskarmentutik eta aurtengo hauteskunde sindikaletan lortutako babesaren bultzadagaz, etorkizunera begira jartzeko unea dugu orain», azaldu dute.

Bestelako sindikatuak, ohi legez, Bilboko manifestazioetan parte hartzea deitu dute. ◀



Joste Eguna Uribe Kosta Ehunaka lagun erabakitzeke eskubidearen alde kalera irten, eta bakoitzak bere oihal zatitxoan ideia, amets, desio edo aldarrikapenak marraztu eta apaindu zituen, pasa den aste akabuan. Ondoren, guztien borondateak elkarregaz josi dituzte.

© JABI ALTZORRITZ

Gizarte-larrialdiko laguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Uribe Kostako Mankomunitateak gizarte-larrialdiko laguntzak eskatzeko epea zabaldu du, ekainaren 19ra arte. Diru-laguntzak helburu jakin batzuetarako bideratuta daude: lehen mailako beharrei erantzuteko gastuetarako (jantziak, hezkuntza, prestakuntza eta osasun laguntza); ohiko etxebizitzari eusteko gastua; alokairu gastuak; eta «linea zuria» delako altzariak eta etxe-

tresna elektrikoak erosteko gastuak. Laguntzak eskatzeko, norbera erroldatuta dagoen udaleko gizarte-zerbitzuen bulegoren batera jo beharra dago. Zenbatekoak honakoak izango dira: 12.000 euro, 15.400 euro eta 17.000 euro; hurrenez hurren familia osatzen duten lagun kopuruaren arabera. ◀

info+: www.uribekosta.org

harremanetarako: 946 762 674 eta 946 763 999

«Euskararen arnaguneak, erabileraren erronka» ikusgai

Apirilaren 22an, Azebarri kultur elkarteak «Euskararen arnaguneak, erabileraren erronka» gaia mahaigaineratu zuen. Horretarako, berbal-dian jardun zuten Jon Sarasua Mondragon Unibertsitateko irakasleak, Josu Amezaga EHUko irakasleak, Aiora Zulaikak «Pirritx» eta Murtxek Rodriguezek «Marimotots» pailazoen. Moderatzailea Fredi Paia bertsolaria izan zen. Hona

hemen QR kodea, berbaldiaren bideoa osorik ikusteko. Eskerrik asko Plentzia TBko lagunei, bideo hau egiteko eskainitako baliabideengatik.

Eskanea ezazu QR kode hau mugikorrarekin, eta berbaldiaren bideoa eramango zaitu.



Unibertsitatea

3+2 graduen erreformari ezezkoa eman diote ikasleek

Pasa den apirilaren 22an, Leioako campusean egindako erreferendumean, 1.697 ikasleek eman zioten ezetza Espainiako Gobernuaren Ministroen Kontseiluak otsailean dekretuz onartutako graduen erreformari, 3+2 legez ezagunagoa denari.

Guztira, 1.721 izan ziren campus horretan bozketan parte hartu zutenak. Gasteiz eta Donostiako datuak gehituz gero, 3.918 lagunek eman zuten botoa, eta haietatik 3.883 dekretuaren aurka agertu ziren. Ikaslebozketaren antolatu zuen Ikasle Ekintza taldea pozik agertu da «ikasleek ekimenari egin dioten harrera onagatik».



16 ikasle bakoitzak ez zuten 3+2 babestu. © IE

Emaitzak ezagutarazi ondoren, IEK «antolatzailea eta borrokatzen jarraitzea» deitu du, «hezkuntza-eredu alternatibo eta eraldatzaile berria eraikitzeko era bakarra delako». ◀



Getxoko hainbat artista gaztek osatzen dute Garrobi. © GARROBI

Hator GART'15era

Garrobik arte-kultur festibala egingo du ekainaren 27an Algortako kaleetan. Artistek zabalik daukate, daborduko, izena emateko aukera.

Garrobi kultur elkarteak GART'15 izeneko jaialdia antolatu gura du ekainaren 27an. Iragarri dutenez, zapatu horretan hamaika arte jardueragaz beteko dituzte Algortako kaleak. «Kolora, magia eta irudimena protagonistak izango dira egun batez gure herriko kaleetan», adierazi dute Getxoko

Artisten Harrobiko kideek. Hala, edozein diziplinako artistei luzatu diete euren burua aurkezteko gonbita, festibalean parte har dezaten.

Jasotako proposamen denen artean aukeratutako lanak ekainaren 27an kalera aterako dituzte Algortako erdialdeko gunetan: plazetan, parkeetan, etorbideetan eta Getxoko Uda-

lak Bihotz Alai plazan ipini ohi duen karpa eta agertoki handian. Erakusketak, kontzertuak, antzezlanak, performanceak, proiektzioak, poesia-irakurketak, berbaldiak, eta askoz gehiago egongo da GART'15 jaialdian.

Helburua edozein diziplinako artistei euren lanak aurkezteko aukera ematea da, banaka zein taldeka, «haien zabalkundea eta herritarrekiko hurbiltzea handituko duten ekintzen bitartez», azaldu du Garrobik. Gauzak horrela, deialdian parte hartu gura duten artistek e-posta bidez egin beharko dute eskaera, euren datuak bidaltzea-gaz batera.

Getxoko Artisten Harrobia

Batetik, Getxoko errutina artistikokulturala sendotzeko asmoz sortu zuten Garrobi urtearen hasieran hainbat sortzaile gaztek. Nahiz eta udalerriko eskaintza kulturala zabala den, «herriko sortzaileen fruituaren falta» zuten; baita «errutina kultural sano eta herrikoia» ere. Getxo eta inguruetakoko arte-kulturaren eskaintza indartzea zein bertoko artisten ekoizpenak erakustea da Getxoko Artisten Harrobia-ren helburua. ◀

info+: www.garrobi.com/festival-jaialdia

Irakurtzea bultzatzeko ekimena abian du Egizuk



Liburu Azoka Algortan. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Euskaltzaleen Topaguneak apirilaren 23ko Liburuaren Nazioarteko Egunean hasitako *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimena Euskal Herri osoko 42 herritan egongo da martxan ekainaren 30era arte (liburu dendetan uztailaren 11ra arte). Getxon, Egizu euskara elkarteak, Udalak, liburutegiek eta liburu-dendek (Bolibar-Elordui, Gobelaurre eta Elkar) jardungo dute elkarlanean, ekimena aurrera ateratzeko.

Kanpainaren izenak berak argi adierazten duenez, hiru pauso eman beharko dituzte parte hartu gura dute-

nek. Lehenengo pausoa irakurtzea da, euskaraz irakurtzea, alegia. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango da etxera eraman eta irakurtzeko. Liburuak irakurri, liburutegira itzuli eta fitxa sinple bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua eta iritzia. Fitxa hori beteta, liburuazainak erosketa-txekea emango dio, hitzartutako liburu dendan erabiltzeko. Azken pausoa, liburu oparitzea da: lagun bati, senide bati, edo nork bere buruari.

Liburutegian jasotako txartelagaz, parte-hartzaileek euskarazko beste liburu bat hartu eta prezioaren %25 gutxiago ordainduko dute (Egizuko bazkideek %50). Maiatzaren eta ekainaren amaieran, 30 euroko erosketa-txeke bana zozketatuko da, hil horretako parte-hartzaileen artean. Bolibar-Elordui, Gobelaurre eta Elkar liburu dendetan erabili ahal izango dira txekeak uztailaren 11ra arte. ◀

Espainolez baino ez, Plentziako ipuin-sarietan

Lanak gaztelaniaz bakarrik aurkez daitezkeen arren, euskaraz zabaldutako oinarrietan *Lanbro Beltza* izena jarri dio Plentziako Udalak, Calibre 38 aldizkari digitalagaz batera antolatutako ipuin-lehiaketari. Aipatutako argitalpeneko iturriek aipatu dutenez, datorren urterako «euskarazko beste sariketa bat edo bakarra ele bietan» egin gura dute. Aurten, ostera, ezin izango da euskarazko lanik aurkeztu.

Hala, lehiaketan parte hartu gura duten adin nagusikoek maiatzaren 31ra arte edukiko dute 1.000 eta 3.000 berba arteko ipuinak aurkezteko aukera. Epea aipatutako egunean itxiko dute, «23:59an itxi ere», oinarrietan irakur daitekeenez. Ipuinaren generoa beltza, intrigazkoa eta poliziakoa izango da; eta itsasoak izan beharko du kontakizunaren ezinbesteko osagaia.

Lehiaketaren irabazlearen berriemateari dagokionez, hirugarren urtez Plentzian egingo dituzten Lanbro Beltza izeneko topaketen amaiera-ekital-

dian jakinaraziko dute. Epaileek bost ipuin hautatuko dituzte, Calibre 38 aldizkariaren webgunean argitaratzeko. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. ◀

Lanbro Beltza ipuin-lehiaketa

Parte-hartzaileak

18 urtetik gorakoak.

Hizkuntza

Gaztelaniaz idatzitakoak baino ez.

Gaia

Genero beltza. Itsasoa, ezinbesteko osagaia.

Sari-banaketa

Uztailaren 11n. Saria: 300 euro.

Lanak aurkezteko epea

Maiatzaren 31n itxiko da, 23:59an.

info+: revistacalibre38.wordpress.com



LEIOA

Historiaren ispilu diren emakumeen jantziak

Maiatzaren 10era arte, *100 urte emakumeen modan* erakusketaz gozatuko aukera dago Kultur Leioan. Antolatzaileek diotenez, «emakumezkoen jantzien bilakaerak mendeko gertaera handiak laburbiltzen ditu, bai sozialak, bai belikoak, bai politikoak». Emakumearen liberazioa, krisialdi ekonomiko handiak, aurrerapen teknikoak, sexu-iraultza... «ezin hobeto

islatzen dira» emakumeen jantzetan. Bestalde, «gizarte eta ekonomia maila, lan-mota, nortasuna eta pentsamendua janzkeratik antzeman daitezke», euren berbetan. «Eta hori horrela izateko arrazoi handiak daude; izan ere, itxura fisikoak asko arduratzen gaitu», gaineratu dutenez. Jantziren batek bilakaera handia eta erabateko aldaketa izan badu,

hori gona da. Antolatzaileen azalpen arabera, «ezaugarri bat izan du beti: gonak gero eta motzagoak ziren, 60ko hamarkadara arte. Orduan, joera hori desagertzen hasi zen, gutxienez bisualki, eta mendearen amaieran ehun gardenak eta irekiduradunak nagusitu ziren». Erakusketak asteleheneretik domekara zabalik dago; baita jaiegunetan ere. ◀

ERANDIO

Ipuinen bitartez, natura zelan babes daitekeen erakutsiko diete umeei

Autu Mautu ipuin-kontalarien taldearen ekimenez, maiatzeko hiru saio antolatu ditu Erandioko Udal Liburutegiak. *Lur planeta*, *maite zaitut* izenburupean, natura babesten erakusteko helburua daukaten ipuinak kontatuko ditu Alberto Vargasek. Lehenengo saioa maiatzaren 6an, eguaztena, izango da Altzagako liburutegian, 18:00etan; bigarrena, hilaren 13an, Astrabuduko liburutegian, 18:00etan; eta azkena, hilaren 22an, Erandiogoikoko Gizarte Etxean, 19:00etan. 4 eta 8 urte bitarteko umeei zuzendutako emanaldiak euskaraz eta doan izango dira. ◀



SOPELA

Latinoamerikako doinuak entzungai

Maiatzaren 8an, barikuan, Miryam Quiñones kantagile perutarak kontzertua eskainiko du Sorelan. Hitzordua 20:00etan jarri dute, Kurtzio kultur etxean. Eta sarrera 4 euroan egongo da. Saioa gaztelaniaz izango da, kultur iturri sopolotzarrek baieztatu dutenez. Silvio Rodriguezen laguna eta musika jarraitzailea da Miryam Quiñones. Perun sorturiko kantagile honen abestiek gaurko usadio latinoamerikarrefik edaten dute, adituek diotenez. *Como el alma en vilo* (2012) da bere azken lana. ◀



2015/05/02 - ordua: 20:00

Abesbatzen kontzertua

Eliza | Gorliz

Stadium Vocale (Valentzia) eta Lirain (Gorliz) abesbatzek kantatuko dute. Sarrera doan.

2015/05/03 - ordua: goiz osoan zehar

XXII. Nekazaritza eta

Artisautza Azoka

Moreaga parkea | Berango
Gizarte Ondarearen erakundeak antolatzen du.

Sozialismoaz berba egingo dute Kurkudin

Apirilaren 30ean, eguena, amaiera emango diote hilaren 23an abiatutako Maiatza Gorria berbaldi-zikloari. Orain-go honetan, *Sozialismoa historian zehar* gaia berbagai izango du Gorka Etxebarriak, 19:30ean, Kurkudin. ◀

Santiago jaietako pregoia nork irakurri?

Maiatzaren 9tik 15era 2015eko Santiago jaietako pregoilaria nor izatea gura duten bozkatzeko aukera edukiko dute gorliztarrek; Sertutxenan jarriko dute postontzia. Epe berbera dago txosna eskatzeko kultur etxean. ◀

Estresa kontrolatzeko tailerra jagoleentzat

Maiatzaren 4tik aurrera, lau astelehenez, estresa kontrolatzeko tailerra eskainiko diete Kurtzion senideren bat zaindu behar dutenei. Saioak 17:30ean hasiko dira eta izen-ematea doan da. ◀

info+: 946 763 999



Su Ta Gar zuzenean, Ereagan

Orain dela 27 urte Eibarren sortutako Su Ta Gar taldeak zuzenean joko du maiatzaren 9an Algotarko Ereaga honedartako aparkalekuan, 22:30etik aurrera. *Bizirik gaude* da euren azken lana. Aurretik, Gorlizko The Great Barrier taldeagaz gozatu ahalko dute ikusleek, 21:00etatik aurrera. ◀

Noiz: Maiatzak 9, zapatua. 21:00
Non: Algotarko Ereaga hondartza
Sarrera: Doan

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

Bertso-saio pirata. Erandioko Gazte Asanbladaren 8. urteurrenaren harira.

2015/04/30 - ordua: 20:00

Malvadiños pop-taldea kandilejas taberna | Getxo

Getxo Zuzenean zikloaren barruan. Sarrera doan.

2015/05/01 - ordua: 19:00

Maiatzaren Leheneko mobilizazioa

Josu Murueta plaza | Erandio
Eskumaldeko LABek deitutako manifestazioa.

2015/05/01 - ordua: 19:00

Kanta Getxo Kanta

San Martin de Tours eliza | Getxo
Studium Vocale (Valentzia), Polifonica de Alcorcon (Madril) eta Eskuz Esku (Getxo) abesbatzek kantatuko dute, topaketa honen lehenengo edizioan. Sarrera doan.

2015/05/01 - ordua: 20:30

Incursed, Pimea Metsa eta Drakum kontzertuan

Sala Sonora | Erandio
Sarrera: 5 euro.

2015/05/02 - ordua: 10:00-20:00

Bertoko Artisauen Azoka

San Pedro plaza | Gortiz
Euria bada, lbarretan egingo dute.

2015/05/02 - ordua: 11:30etik aurrera

Erandioko Gazte Asanbladaren 8. urteurrena

Herrian zehar | Erandio
Informazio gehiago: www.kalezulo.blogspot.com

2015/05/02 - ordua: 11:30etik aurrera

Sekeko Gaztetxearen 5. urteurrena

Herrian zehar | Sopela
Informazio gehiago: www.sopelakoga.com

2015/05/02 - ordua: 18:00

Cenicienta filma

Kultur Etxea | Urduliz
Zinea denentzat. Espainolez. Sarrera: 3,5 euro..

2015/05/02 - ordua: 19:00

Los juegos del hambre. En llamas filma

Berango Antzokia | Berango
Zinea 12 urtetik gorakoentzat. Espainolez. Sarrera doan.

www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

2015/05/03 - ordua: 09:00

Txori kantarien txapelketa

Ondargane | Gortiz
Euria bada, pilotalekuan egingo dute.

2015/05/03 - ordua: 09:00etatik aurrera

Herri-ibilaldia

Akilino Arriola, 1 | Sopela
Urko Mendi Taldeak antolatuta. Izen-ematea egun ean egingo da, itteera baino lehen.

2015/05/03 - ordua: 10:00etatik aurrera

Bisita gidatua Urduñara

San Pedro eliza | Sopela
Zirimarra elkarteak antolatuta, autobusa elizaren aurrean dagoen markesinatik irtengo da. Izena emateko: 616 527 849 (Maria).

2015/05/03 - ordua: 11:30-21:00

Flow Market Getxo

Igeretxe hotela | Getxo
Urteurren berezia ospatuko du azokatxoak. Sarrera doan.

2015/05/03 - ordua: 17:00

Ahate itsusia eta ni filma

Andres Isasi musika-eskola | Getxo
Animazio-zinea umeentzat. Euskaraz. Sarrera: 2,10 euro.

2015/05/03 - ordua: 18:00

Lucius Dumben berebiziko bidaia filma

Berango Antzokia | Berango
Animazio-zinea umeentzat. Euskaraz. Sarrera doan.

2015/05/04 - 2015/05/15 - ordua: 09:00-20:00

Uztaleko azoketan izena emateko aukera

Kultur etxea | Gortiz
Nekazaritza-azoka uztailaren 25ean izango da, eta eskulangintzari buruzkoa, 26an.

2015/05/04 - ordua: 17:00-19:00

Txotxongilo tailerra

Urizarreko eskola | Lemoiz
Euskaraz Olgetan jardunaldien barruan, 1 eta 10 urte arteko umeei zuzen duta. Euria bada, Urizarreko pilotalekuan. Parte-hartzea libre.

2015/05/05 - ordua: 19:00

Iñigo Cabacas. Cronica de una herida abierta filma

Txorimalo gaztetxea | Getxo
Espainolez. Sarrera doan.

Bilboko pop-rock lehiaketan izena emateko aukera zabalik dago

Banda hasiberrien musika bultzatzeko asmoz, gazteek osatutako Europako taldeei zuzenduta dago lehiaketa. 5.000 eta 1.100 euro arteko sariak banatuko dituzte.



The Wizards taldeak irabazi zuen iaz metal kategorian.

Bilbo Hiria Pop-rock Lehiaketa-ren 27. edizioa antolatu du Bizkaiko hiruburuko udalak. Sariaketa gazteek osatutako Europako taldeei zuzenduta dago, banda hasiberrien musika bultzatzeko eta zabaltzeko. Hala, oinarrietan zehaztutako baldintzak betez gero, maiatzaren 14ra arte edukiko dute izena emateko aukera musika-bandek. Taldeek aukeran dauden hiru modalitateetako batean jardungo dute: pop-rock, metal, edo musika elektronikoa eta beste joera batzuk. Horrenbestez, lehian sartutako talde denetatik 38 aukeratu ditu epaimahaiak; horitatik 24 pop-rock modalitatekoak, eta 10 metalekoak izango dira; irailean eta urrian Bilborock aretoan joko dute eta lehiatuko dira. Bigarren fasean, multzo horietako hiruna taldek baino ez dute

epaileen galbahea pasako. Ostera, Elektronika eta beste joera batzuetako 4 talde, bigarren fasea sailhestuta, eta zuzenean igaroko dira finalera. Musikaririk onenak zeintzuk diren erabakitze kontzertuak azaroan izango dira.

Sariak

Pop-rock eta metal taldeei dagokienez, hiru sari banatuko dituzte modalitate bakoitzeko: lehenengoek 5.000 euro jasoko dituzte; bigarrenak, 2.500 euro, eta hirugarrenak, 1.200 euro. Musika elektronikoa eta beste joera batzuetako banden artean, berriz, bakarrak jasoko du saria: 2.200 euro. Bestalde, 1.100 eurokoa izango da epaimahaiaren sari berezia; eta amaitzeko, Bilboko eta Bizkaiko onenentzat ere sari bereziak banatuko dituzte ◀

info+: www.bilbao.net/bilborock

Zinema fantastikoak laster hartuko du Bilbo

Maiatzaren 8tik 15era bitarteko astean Bilbo zine fantastikoaren hiriburu bihurtuko da berrir, FANT jaialdiaren 21. edizioa egingo baita. Baina, ohikoa denez, aurreko egunetarako ere hainbat jarduera programatu dira. Aurten Kale Nagusiko BBK Aretoan egingo dira, maiatzaren 2tik 5era, eta sarrera doakoa izango da.

Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren aurre-programazioak *Giallo* zine-zikloa hartuko du, Bizkaiko hiriburuko Casaitalia Italiako Hizkuntzaren eta Kulturaren Euskadiko Institutu Ofizialagaz elkarlanean; Dario Argento zine-

gile ospetsuari eskainiko diote zikloa. Sekzio horretan aipatutako zinegilearen film ezagunenetako hiru eman go dituzte: *El pajar de las plumas de cristal* (1970), *El gato de las nueve colas* (1971) eta *4 moscas sobre terciopelo gris*. «Dario Argento *Giallo* (Erroma, 1940) generoak eman duen zinegile nagusietakoa da, eta bera izan zen genero hori ezagun egin eta Italiatik kanpora eraman zuena», diote antolatzaileek. Programatutako hiru filmak BBK Aretoan ikusi ahal izango dira, maiatzaren 3tik 5era. Gehiago ere egongo da PRE-FANT saioetan... ◀

info+: fantbilbao.net

Familia-argazkirako txangoa egingo du hilaren 3an ALBEk

Beharbada 35 urteurreneko ekitaldirik «osoena eta osagarriena» egingo dute maiatzaren 3an, domeka, ALBE Algortako Bertsolari Eskolako kideek. #ALBE35 traola osatzen duten hizkiakaz, porexpan-ez egindako letra erralodiak enkargatu dituzte. Horiek eskualdean barrena egingo dute txangoa, eta «familia» argazkiak atera. 09:45ean abiatuko dira kotxeak Berangoko gasolindegitik, eta bazkaria ere egingo dute Barrikako nagusien etxean, 14:30ean. Izena emateko azken eguna maiatzaren 1a da. ◀

Bazkarirako izen-ematea: albegetxo@gmail.com
605 70 43 85

Gotzon Elortzaren albistearen gaineko hainbat azalpen

Gotzon Elortza errealizadore algortarrari buruz apirilaren 2an plazaratutako albistearen harira, hainbat azalpen eman gura ditu HIRUKAK. 11. orrialdean argitaratutako artikulua osatzeko, *Aberria* filmaren irudietako bat erabili genuen. Okertuta, Karla Llanos blogariarena izango balitz bezala sinatu genuen argazkia, bere blogetik atera genuelako. HIRUKAko lantaldeak adierazi gura du irudia pelikulatik bertatik hartutakoa ei dela, eta HIRUKAK ez zuela erabiltzeko baimenik. Hori dela eta, sortutako eragozpenak barkatzea eskatu gura diegu Elortzaren senideei eta Llanosi. ◀

HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota: 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota: 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

- ☐ **Bazkide Erabiltzailea**
☐ **Bazkide Laguntzailea**

Hiruka laguna

- ☐ Urtean 35€ ☐ Urtean _____ €

Izena		NA	
Abizenak			
Helbidea			
Posta kodea		Herria	
Herrialdea		Telefonia	
E-posta			
Kontu korrante zenbakia			

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAko emandako datuak fixategi automatikoki bazez sartuko dira, erabiltzailearen harremanetan jartzeko eta HIRUKAko informazioa eta publikazioa helarazteko. Bereziki erabiltzailearen aurkeztutako baimenaren bidez. Erabiltzaileak nahi duen orduan datuak zuzentzeko edo kentzeko bide eskubideak bere diskoetara bidaltzeko eskubidea du.

«Laburretako sortzaile berrien alde egin beharko litzateke»

Urtzi Perez Gerrikagoitia

zinemagile itzubaltzetarrak euskaraz egindako lehenengo film laburra da *Betiko istorioa*.

Apirilaren 24an aurkeztu zuen bere bosgarren film laburra, Bilboko Pabellon 6 aretoan, Urtzi Perezek.

Euskaraz egin duzun lehenengo film laburra da *Betiko istorioa*.

Bai. Aurreko beste lau lanak gaztelaniaz egin nituen eta nire buruagaz neukan zor bat zen hurrengo euskaraz egitea. Azken finean, Euskal Herrian bizi gara eta euskara dugu gure hizkuntza. «Hurrengoak euskaraz izan behar du», esan nion nire buruari.

Filma euskaraz egiteak lan handiagoa eragin dizu?

Oso antzekoa izan da lana. Miren Gaztañaga eta Ines Garcia-Cardenal aktore protagonistei gaztelaniaz eman dizkiet zuzendaritzaren gaineko azalpen denak. Baina, bere papera interpretatu eta testua irakurtzeko orduan euskaraz egin du bakoitzak. Akabuan, oso antzekoa izan da prozesu osoa.

Zelan bururatu zitzaizun *Betiko istorioa* film laburra egitea?

Aspaldi nuen erronka tekniko baten ondorioa da *Betiko istorioa*. Ahalik eta plano gutxien erabiliz istorio bat kontatu gura nuen. Istorioa bera oso erakargarria suertatu zitzaidan. Bizitzan aurkitzen ditugun mugez dihardu pelikulak; horiek gure buruari ipini behar dizkiogun ala ez. Ondorio ezberdinak jasango ditugu horiek onartuz gero, ala horietatik ihes eginez gero.



Film laburrez gainera, bideoklipak ere egin ditu Urtzi Perezek.

Pertsonaiei buruz zer esan dezakezu?

Bi pertsonaia aurkituko ditugu. Oso tipikoak, gainera. Alde batetik, emakume heldu bat, familia bateko ama. Eta bestetik, hasiera batean, gaitzik gabeko neska, aurrekoaren alaba. Gaia kontuan edukita, zuek ondorioztatu...

Zelakoa izan zen errealizazio-lana?

Aurretik grabatutako film laburren parekoa izan zen. Lehendabizi gidoia idazten duzu eta istorioari «ukituak» ematen hasten zara, zure gustura jartzen duzun arte. Geroago dator filmerrako egokiak izan daitezkeen aktoreak bilatzeko lana, eta, horiek aukeratu eta gero, gidoia bidaltzea. Material teknikoa eta beste hainbat gauza ere prestatu beharra dago. Eta, azkenik, film laburra grabatu. Lan honen errealizazio-lana nahiko erraza izan zen, hasiera batean. Egun bat baino ez ge-

nuen erabili behar izan grabatzeko. Hartualdi denak Leioako Pinosolo inguruan egin genituen, leku polita eta lasaia iruditzen zitzaigulako.

“Zerbait txukuna egiteko dirua behar da. Jaialdietara aurkezteko, oster, ezaguna izatea”

Aintzatespen nahikoa du film laburren munduak?

Baliabide teknikoak gero eta eskuragarriago daude. Bideo-kamerak eta horrelakoak prezio onean aurki ditzakezu. Baina, zerbait txukuna, profesionala, egin gura baduzu, oraindino diru-zorro polita behar duzu. Batez ere, helburua zure lana jaialdietan aurkezteka bada. Horrez gainera, zelan-

bait, apurtxo bat ezaguna izan behar duzu jaialdi horietan parte hartzeko aukera edukitzeko.

Zinegile asko galduko dira bidean...

Tamalgarría da. Sortzaile handi ugari ditugu inguruan, kontatzeko istorio mordoa daukatenak, gainera. Baina euren izena ezaguna ez denez, akabo fandangoa! Film laburretako sortzaile berrien alde egin beharko litzateke. Azken finean, zinearen mundua maite dugulako egiten dugu lana, ilusio handiz gainera. Askotan dirua galdu ere egiten dugu. ◀

Eskuarte badaukazu proiekturik?

Pobre papa izenburuko film laburra grabatu dut Maribel Salas, Gurutze Beitia, Itxiar Aizpuru eta Javier Cañon aktoreekin. 2016rako egongo da, soinu behar bezala landuta. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
 info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net





- Soropila Ezartzea
 Luzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsko organitze lanak eta erate lanak.

- Soropila zaintzea eta mantentzea
 Moztea, ureztatzea, organitzea, egurastea, aratzea eta destinkatzea, berrikatzea, soropil gaiztak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak
 Hazteko, mantentze, berriketako, zahar eta opaingarriak inautse, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibasertza 28A beheko solairua B12 lokala (ERANDIO) Mug: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Fax: 94 467 42 41
 luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

«Liburu bakoitza pertsona baten gogoeta baino ez da. Indarkeriaz egin dut nik»

Unai Elorriaga Lopez de Letona idazle algortarrak 2014ko Espainiako Kritika saria irabazi du *Iazko hezurak* eleberriagaz. Sopelako Irakurle Klubak antolatuta, apirilaren 30ean, eguenagaz, saritutako liburuaren gaineko berbaldia eskainiko du, Danele Sarriugartek gidatutako saioan. Hitzordua 19:00etan izango da, Kurtzio kultur etxean, sarrera doan.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Unai Elorriaga idazlearen (Algorta, 1973) *Iazko hezurak* eleberriak (Susa, 2014) Irene Arrias fikziozko pertsonaiaren bizitza du hari nagusi, 1971ean Algortan jaio zenetik 2015era arte. Biolentziagaz duen obsesioa eta erakusten duen giza-izaeraren gaineko ikuspegi ezkorra ditu ezaugarri nagusi. Arriasen bizitzako pasarte nagusien kontaketakaz batera, denboran bat gertatzen diren indarkeriazko ekintzak agertuko zaizkigu, mundu osoan jazotakoak, baina bi kokagune nagusigaz: Euskal Herria eta Ruanda. Indarkeriaren gaineko gogoeta da *Iazko hezurak*.

Pozarren hartuko zenuen *Iazko hezurak* eleberriagaz 2014ko Espainiako Kritika saria jaso izana.

Bai. Azken batean, bost urte egiten dituzu gauza bat idazten, eta, tarte horretan, ez dakizu ondo zabiltzan, inori gustatuko ote zaion, inori interesatuko zaion... Hor zaude ez dakizula norantz zoazen... Gero, batetik, lagunen kritikak entzuten hasten zara; bestetik, kritikariak, blogariak eta horrelakoak... Ikusten joaten zara zure liburuak indar bat badaukala, eta batzuei gustatu zaiela, beste batzuk harritu egin dituela. Eta, gainera, sari bat dator! Bost urteko lan horrek merezi izan du.

Zoriontzeko mezu ugari jaso dituzu?

Basagoititik noanean ezinezkoa egiten zait ibiltzea (kar, kar). Baina, egia esan, asko jaso ditut; denek dauka sariaren berri Algortan. Besteak beste, orain

dela egun batzuk Liburu Azokan aleak sinatzen ibili ginen hainbat idazle, eta 17 urteko neska bat etorri zitzaidan esanez liburua irakurtzen gau osoa, lo egin barik, eman zuela. Horrelako gauzek harritu egiten zaituzte.

Emango dituzun berbaldietan jorratu beharreko gaia izango da sariarena, ezta?

Bai, zalantza barik. Daborduko eman ditut batzuk saria jaso eta gero, eta jende denak galdetzen dit.

“Euskal literatura aspaldi dago sasoi onean. Hitzun gutxi garen arren, asko idazten da euskaraz. Gazte asko dabil horretan”

Baina, azken batean, sari batek ez dauka komentatzeko askorik. Epaila batzuk daude eta eurei gustatu zaie, baina beste batzuk egonez gero, beharbada, beste batek edukiko luke saria. Ondo dago irakurle fin batzuk daukazulako saria jasotzea.

Felipe Juaristik jaso du Kritika saria poesian.

Hala da. Nik uste dut euskal literatura aspaldi dagoela ondo. Baina sari honek ez du hori adierazten.

Azken finean, garaikur berbera ematen diete liburu galego biri, katalan biri eta Espainiako biri. Hori alde batera utzita, nik irudipena daukat euskal literatura nahiko ondo dagoela, kontuan hartuta ze gutxi garen. Hitzun gutxi egon arren, asko idazten da. Eta asko diodanean, asko da. Kalitate handiagaz gainera. Gazte asko dabil idazten. Internet eta informatika puri-purian dagoen sasoi honetan, eskertzekoa da baten bat gelditzea eta paperean argitaratzea.

Zer aurkituko du *Iazko hezurak* lanean oraindino irakurri ez duenak?

Ez da erraza laburbiltzea. Esan bezala, bost urteko emaitza da eta irakurketa asko ditu. Gogoeta zabal bat egiten da, bai indarkeriaz, bai gu izan garenaz; euskaldunok garenaz... eta algortarrok tartean. Izan ere, azken batean, Algortan bertan girotuta dago liburuak. Gu zer izan garen eta mundu zital honetan ze paper jokatu dugun agertzen dira bertan. Baina, hori nire gogoeta baino ez da. Beharbada beste algortar batek kontrakoa esango luke. Liburu bakoitza pertsona baten gogoeta baino ez da eta nik nire gogoeta egin dut Algortari, euskaldunei eta munduari buruz.

Irene Arrias eleberriaren protagonistak bezain ikuspegi ezkorra daukazu zuk?

Indarkeriari buruz, zentzu zabalean, Arrias bezain ezkorra naiz. Horren inguruko edozein liburu, artikulua edo idatzi irakurritz gero, argi geratzen da biolentzia beti egon dela, orain ere badagoela eta egon-



go dela, interes batzuk daudelako eta gizakia den modukoa delako. Ezkorra baino, errealista naiz. Itsua izan behar du batek, munduan zer dagoen, zer egon den orain arte, eta zer egongo den ez konturatzeko. Baina, ahalegina egin beharko dugu horren kontziente garenok indarkeria eta gatazka ahalik eta gehien saihesteko. Batez ere, jakitun bagara beste batzuen interesen arabera sortuta daudela. Batzuetan gu gabilta borrokan beste batzuek konturatu barik ez garela gure alde ari, beste batzuen interesen alde baizik. Berbarako, oso kurioa egiten zait ingurukoek gipuzkoarren kontra daukaten herra berba egitean, eta alderantziz. Galdetzen badiezu, ez dakite ondo zergatik gorrotatzen dituzten gipuzkoarrak, baina horrela da inguruan interesak daudelako bizkaitarrak eta gipuzkoarrak ondo ez konpontzeko.

Indarkeriari buruzko gogoeta izan gura du nobelak? Literaturak horretarako balio du: gogoeta egiteko eta gauzei buruz hausnartzeko, horietan sakontzeko eta irakurleei hori eragiteko. Orain, hausnarketa horrek ze emaitza edukiko duen, batek daki. Nik ez dakit, eta, seguruenik, irakurleak ere ez du jakingo; baina, tira, hor dago gogoeta.

Liburuan ez duzu indarkeriaren gaineko ondoriorik ematen. Kontzientzia esnatzeko erreminta da?

Ez, ez, ez. Hori da. Nik ez dut ondoriorik ateratzen hortik. Nik neuk ez daukat eta ez dut idazten, jakina. Irakurleen batek, beharbada, ondoriorik aterako

du, edo ez. Batek daki. Baina berdin dio, behintzat buruari eragin badio.

Izenburua nondik atera zen?

Izenburua XVI. mendeko euskal liburu batetik atera nuen. *Refranes y sentencias* goiburua jarri zioten, euskaraz dagoen arren. Euskal esamolde eta esaera zaharren bilduma da. Horrelako batean bazegoen bat, asko gustatu zitzaidana: *Iazko asto hilak aurten lurrana*. Horri buelta emanda atera zen.

“ Kritikariak ez daukate motxila handiegirik nobela asko sartzeko, eta, halabeharrez, bat aukeratu behar dute ”

Orain lortutako Kritika saria ez da zure lehenengo saria Espainia mailan.

Bai, beste sari batzuk ere badauzkat, nahiz eta ematen duen Espainiakoak entzun egiten direla eta beste batzuk ez. Berbarako, AEBetako Kultura Ministerioak eman zidan sari handi bat *Vredaman* nire hirugarren nobelarekin (Elkar, 2005), eta ez zen entzun gurean. AEBetako Gobernuak berak eman zidan! Aipatutako hori urtean atzerriko hiru libururi ematen diote ba-

karrik. Hiruretako bat nirea izan zen; kontuan edukita zenbat liburu atzeritar dagoen AEBetan, poz handia ematen du pertsonalki ezagutzen ez zaituen batek sari bat emateak, eta berak uste izatea zuk me-rezi duzula sari hori.

Hala ere, *SPrako tranbia* (Elkar, 2001) lanak jasotako Espainiako Narratiba Sariak egingo zintuen ezagun Euskal Herririk kanpo.

Jakina. Azken batean, hedabideetan irabazi duzula agertzearekin batera, horrelako sari handi batek beti irekitzen dizkizu argialetxeen ateak. Hala ere, ez pentsa horrek liburua argitaratuko dizutela bermatzen duenik. Argialetxeek irakurtzeko eskatzen dizute, baina ez du esan gura gustatuko zaienik. *SPrako tranbia*, adibidez, hamar hizkuntzatara-edo itzuli egin da.

Gainera, Aitzol Aramaiok film bihurtu zuen. Antzik badauka *Un poco de chocolate* filmak liburuagaz?

Egia esateko ez da liburuarekiko oso fidela, baina hori hasieratik jakin genuen. Azken batean, hizkuntza diferenteak dira, jende asko sartzen da tartean, hasten dira gauzak aldatzen... Eta, azkenean, emaitza oso diferentea da. Baina, arrisku hori ezagutzen duzu sinatzen duzunean eta liburuaren eskubideak eskatzen dizkizutenean, eta aukera bi daukazazu: pelikularik ez egitea, edo egiten baduzu, onartzea aldatuko dituztela gauza asko goitik behera.

Iazko hezurak heldu arte, *SPrako tranbia* zure lanik nagusiena zela esaten zuten kritikari askok.

Urte asko daramatzat honetan, eta, nire ustez, irakurleek, kritikariak eta unibertsitate-irakasleek ez daukate motxila handiegirik nobela asko sartzeko, eta bat aukeratu behar dute. Hautatutako horrek beste batzuen onespina badauka, argi daukate zein den: «saria dauka honek, eta hau aukeratuko dugu». Nik ez dut uste *SPrako tranbia* nire lanik onena denik, inondik inora ere. Ematen du erakargarria dela jende askorentzat. Orain, literarioki... Nik literaturaz dakidanagatik badauzkat beste lan batzuk, berbarako *Londres katoizkoa da* (Elkar, 2009), *SPrako tranbia* baino askoz hobeagoak direnak. Baina, jendeak aukeratu behar du bat, eta horrekin identifikatu.

Ez zara hori gertatu zaion idazle bakarra...

Berbarako, Julio Cortazarrek idatziko zituen 17 edo 18 liburu, eta ezagutza ematen dute beti *Rayuela* eleberriagatik. Eta liburu batzuk dauzka berak, batez ere ipuin-liburuak, *Rayuela* baino askoz hobeak. Baina, kontua da jendeak ezin dituela denak gogoan hartu, izen eta data denak... Adibidez, *Queremos tanto a Glenda* izenburua luzeegia da. «*Rayuela* gogoratu eta nahikoa daukat», pentsatzen dute batzuek.

Gainera, iazko hezurak eleberriagaz bost urte eman dituzu. Denbora nahikoa, lan sakonagoa egiteko.

SPrako tranbia baino askoz landuagoa da. Baina, daborduko, ulertu dut hori horrela dela eta beti aipatuko dutela bestea. Egia esan, berdin dit. Hemen-dik ehun urtera jendeak jarraitzen baldin badu irakurtzen, beharbada, baten bat konturatuko da *Iazko hezurak* liburua *SPrako tranbia* baino askoz hobeagoa dela eta bakarrik berba egingo dute horri buruz. Begira, ehun urte barru gure ondorengoek ikusiko dute; guk, oster, ez. ◀



Ahutzak eta sopeloztarrek mendira

Urko eta Munarrikolanda Sopelako mendi-taldeek ekimen bana egingo dute datozen egunotan, mendia jomuga; naturarekiko lotura handia dute sopeloztarrek.

Esaera zaharrak dioen legez, «ahutzak beti mendira». Atso-titza ondo egoki dakieke sopeloztarrei. Izan ere, udalerrri er-taina izanda, mendi-talde bi ditu eta bata zein bestea osasuntsu dabil. Aste akabu honetarako, gainera, nork bere ekimena prestatu du.

30 urtez

Urko mendi-taldeari dagokionez, do-mekan egingo du bere herri-ibilbide-aren 30. edizioa. Urteurren biribil ho-rretan, elkarteko ekimen nagusiak berriro ehunaka mendizale eta kirol-zale batu gura ditu, eta antolakuntzak ohi bezala jardungo du. Besteak bes-te, irteera Sopelako Akilino Arriola ka-lean ipiniko dute, taldeko egoitza den bertako batzokiaren aurrean. Bertan egin ahal izango da izen-ematea, pro-ba abiatu aurretik. Ohi legez, erabat doakoa izango da. Nagusiek goizeko

08:30ean izango dute hitzordua, eta txupina bota ondoren, 16 kilometroko ibilbideari aurre egin beharko diote.

Neska-mutilek eta gurasoek, ber-riz, luzaroago lo egiteko aukera izan-go dute, euren martxa abiatzeko ordua

2014an, Europako Kirol Hiririk Onenaren izendapena jaso zuen Getxoko udalerrriak

goizeko 10:00etan jarri baitute antola-tzaileek. Gainera, gutxi gorabehera distantzia erdia besterik ez dute egin beharko. Batzuek zein besteek Urdu-lizko batzokian izango dituzte jana eta edana indarrak batzeko. Nagusiak kostaldetik, eta gaztetxoak zein horien



Mendizaletasuna oso zabaldua dago Sopelan. © MUNARRI MENDI TALDEA

laguntzaileak barnetik, atzera buelta egin beharko dute guztiek Sopelako udaletxeraino, kontrol-gune guztietatik igaroz.

Festa giroa

Ibilbidean hainbat boluntario izango dira norabidea adierazteko, inor galdu ez dadin.

Martxa amaitzean, hamaiketakoaz gozatu ahal izango dute, sari eta opa-riak jasotzeagaz batera, beti ere par-te-hartzearen txartela erakutsiz gero. Barinatxe txistu-taldeak eta Tri-kileku trikiti-taldeak giroa alaituko dute, ka-lez kale haien doinuak oparitzen.

Txokolate-jana

Martxaren egun handia domeka izan-go bada ere, bezperarako, zapatua, txokolate-jana antolatu dute Urko men-di-taldeko kideek Udaletxeko plazan, arrastiko 19:00etan. Haien esanetan,

«ibilaldirako ondo prestatzeko» baliagarria izango da askari hori.

Pirinioetara

Munarrikolanda izango da lehenengo taldea botak janzten, kronologikoki begiratzuz gero. Izan ere, barikutik do-mekara Huescara joango dira Pirinioe-tan mendi-txangoa egiteko. Mendiza-leek jakinarazi dutenez, Maiatzaren Lehenean, goizeko 6:00etan irtengo dira autobusez Sopelatik Yebra de Ba-sako aterpean ostatua hartzeko. Bazki-deek 95 euro jarri beharko dituzte au-tobusa, aterpeko bi gauak eta afariak zein gosariak ordaintzeko. Bazkideak ez direnek bost euro gehiago ordaindu beharko dituzte. Honako gainak bisi-tatzeko asmoa dute: Oturia (1.921 me-tro), Erata (2.005), Manchoya (2.035) eta Peña Gratal (1.567). ◀

Info+: Munarri.com
Info+: Urkomendi.blogspot.com



Erandioko idien heriotzak idi-proben inguruko eztabaida eragin zuen. © JOSU ASTRAIN

Fiskalak salaketa ipini du Erandioko idiengatik

Bizkaiko Lurralde Fiskaltzak sa-laketa aurkeztu du iazko abuz-tuaren 16an Erandion dopinez hil ziren idi bien auziatatik. Fiskalak Bilboko 10. Instrukzio Epaitegiari es-katu dio ikerketa-diligentziak zabal ditzan, Kode Penalaren 337. artiku-luari jarraikiz, balizko gaizkileek ani-maliei tratu txarrak eman zitelakoan. PACMA alderdi animalistak eta Aprova animaliak defendatzeko elkarteak eska-tu zioten Fiskaltzari «krudelkeria horren aurrean» neurriak har zitzan.

Horrez gainera, idi-proben inguru-ko jendarte-eztabaida aldarrikatu dute. Aipatutako idiak Erandiogoikoko An-

dra Mari jaietan hil ziren, idi-probetan. Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak egin zituen nekropsiek eta anali-siek ondorioztatu zuten, kirol errendi-mendua hobetzeko «speed»-a eman os-tean hil ziren biak. Aldundiak emaitzen berri eman zion Erandioko Udalari, ho-rien jabeari zigor-espediente zabal zie-zaion. Abeltzainari 1.500 eta 15.000 euro arteko isuna ekar diezaioke horrek. Ani-malien Babesen Legeak falta oso larri-tzat jotzen baitu abereei errendimendua hobetzeko substantziak ematea. Herri Kirolen EAEko Federazioaren presiden-teak agerraldia egin zuen Eusko Legebil-tzarraren Kultura Batzordean. ◀

Punta Galea, pedalarari eragiten



Familia handia osatzen dute txirrindulariek. © PUNTA GALEA TXIRRINDULARITZA ELKARTEA

Pasa den apirilaren 17an, Punta Galea txirrindulari-elkartearen aurtengo taldeak aurkeztu zituzten Fadurako Aretotik. Nagusian. Ilusioz ikusten dute denboraldi berria, aurrekoan gogoz jardun ostean. Eskolan iaz baino partaide gehiago izango dituzte, eta bestelako kategorietan, 2014ko antzeko neska-mutil kopurua. Elkarrekin hitzordu garrantzitsu bi ditu datozen egunotan: domekan, maiatzaren 3an, Bizkaiko txirrindulari-eskolen biltzarra hartuko du Aixerrorotik. Goizeko 10:30etik aurrera, 6 eta 14 urte bitarteko 300 bat neska-mutilek kilometro luze bateko zirkuituari egingo diote aurre. Txirrindularitza-eskolen batean ez dauden ume eta gazteek ere parte har dezakete, aurretik klubagaz harremanetan jarritik gero. Bestalde, maiatzaren 9an, Javier Otxoa klasika - Punta Galea XXX. Randonee martxa zikloturista izango da. Inskripzioak Faduran egin ahal izango dira, aurreko egunetik. ◀

Info+: Puntagalea.com



Haritz Lopez de la Calle borrokalari astrabuduarrari gorazarrea egin zioten pasa den zapatuan auzokideek, lagunek, senideek, AKT taldeko kideek eta Erandioko Udalak. Aurrekoa dantzatu eta lore-sorta eta garaikurra eman zizkioten Espainiako K1 txapeldun berriari.

© ERANDIOKO UDALA

Garaipenak batzen dabil Lointek Team

Alicia Gonzalez Sopelako Lointek Team taldeko txirrindulariak Bizkaikoloreak txapelketa irabazi zuen domekan, 23 urte azpiko mailan. Gainera, asturiarra bigarren heldu zen Matiena-Abadiño hirugarren eta azken etapan. Elite mailan Lucia Gonzalezek, bere ahizpa eta taldekideak, hirugarren postua lortu du. Lointekoko beste txirrindulari bat, Eider Merino balmasedarra, Bizkaiko onena izan zen aipatutako txapelketan. Hori ez da lortu duen garaipen bakarra, Euskaldun Sariaren lehen postua oraingoz mantentzen du Merinok,

23 urte azpikoen artean. Aurretik, hilaren 19an, nagusitu zen bere herrian jokatu zen Balmasedako Emakumeen XIV. Sarian. Euskaldun Saria Sopelan izango da: ekainaren 6an egingo dute lehenengo aldiz, eta Larrabasterran amaituko da uztailaren 11n.

Espainian, nagusi

Atzerrian ere emaitza onak ditu Lointek: Espainiako Koparen orain arteko etapa biak irabazi ditu, Aurora Verhoeven frantsesa eta Alba Teruel valentziarra nagusituta. Gainera, Cadizko Belen Lopez jarri du lidergoan. ◀

I
Iñaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

REBEL

TATTOO

Basagoiti 73, 48991 ALGORTA
Tf. 945 12 07 52
[facebook/RebelTattooAlgorta](https://facebook.com/RebelTattooAlgorta)

Garazi Sanchezen urtea

Garazi Sanchez Ortun surflari getxoztarrak urte ona dauka. 2015ean, babeserako hitzarmen berria sinatu du, Rollei Actioncam kirol argazki eta bideo-kamera konpainia alemanaren Kaos banatzaileagaz. Horri esker, 23 urteko kirolariak ondo egiten dakiena egiten jarrai dezake: surf-taula gainean olatuak hartzea, Euskal Herrian zein nazioartean. Kanpoan, surfean jarduteko leku exotikoetara jo du azken hilabete eta asteotan: Indonesiako Sumbawa irla; Txinako Hainan uhartea, Lucia Martiño surflari asturiarragaz batera QS zirkuituaren emakumezkoen lehenengo probara egindako espedizioan; Afrikako Lanzarote irla, non, gainera,

maiatzean Red Bull Rivals lehiaketan ordezkoa izango den. Bestalde, Europako txapelketa dauka helburutzat.

Etxean ere, lehian

Baina nazioarteak ez du Sanchez Kantauritik urrundu. Apirilaren 11n, Bizkaiko txapela bururatu zuen Sopelan, Emakumezkoen Surf Open kategorian. Eneko Acero algortarrak jantzi zuen, berriz, gizonezkoen txapela. Aurretik, Aste Santuan, Biarritzko Maider Arosteguy Memorialean bigarren sailkatu zen Sanchez. Azkenik, maiatzaren 17an, Irungo Ficoba azokan izango da, Sportjam ekimenean, surf-harrobiko gazteez jarduteko, Alazne Aurrekoetxea sopoloztarragaz batera. ◀



Getxoztarra Europako Txapelketan bigarren izatera heldu da. © GARAZI SANCHEZ



Kategoria ezberdinetako irabazleak; berdez jantzita, Oskar Martinez. © EKFB

Oskar Martinez, Mundakan irabazle

Lekeitioko txapelketa atzeratuta, Mundakan estreinatu zen aurtengo Euskadiko Kayak Surf Kopa, pasa den apirilaren 18an eta 19an. Bertako txapelketaren 13. edizioak olatu txikiak ekarri zituen, parte-hartzaileek ahaleginak eta bi egin behar izan zituzten horiei atarramentu ona ateratzeko. Gauzak horrela, Oskar Martinez palista algortarra hirutan sartu zen podiumean. Master IC kategorian garaipeña lortu zuen, Luis Abando bakiotarraren aurretik; Master HPn, ordea, bigarren sailkatu zen, Txema Carreto durangarraren atzean; eta, azkenik, Open IC modalitatean, hirugarrena

izan zen; Edu Etxeberria eta Xabi Olano gipuzkoarrak nagusitu ziren. Aste akabuko beste irabazleak izan ziren Enara Ibarburu, Gorka Martin eta Odei Etxeberria; denak, Donostiako klubekoak.

Euskal selekzioa

Mundakako probaren eta iazko Euskadiko Koparen emaitzei esker, Galiziara bidaiatuko duten euskal selekzioaren 16 kideak zehazten hasi dira. Izan ere, ekainetik uztailean bitartean Galiziak hartuko du Munduko Kayak Surf Txapelketa. 2013an, euskal herritarrek urrezkoa lortu zuten Australian. Oskar Martinez talde hartan lehiatu zen. ◀

Instagramzale gazteak batuko ditu Getxok

Instagram, Interneteko argazkilari-tza-sare soziala darabilten gazteen-tzak bilkura antolatu du Getxo Kirolak udal erakundeak. Alvaro Gonzalez zinegotziak zuzentzen duen instituzioak elkarlanean jardun izan du #getxokirolak komunikazio digitaleko proiektuan parte hartzen dabiltzan hainbat kirol elkartegaz zein Instagramers Bilbao erakundeagaz batera. Hitzordua apirilaren 30ean, egunean, jarri dute, arrastiko 18:30ean, Fadurako kiroldegia sarreran.

Getxo Kirolak erakundeak zabaldu duenez, hitzordu horren helburua espazio publikoan egiten den kirol-

jardueraren irudiak eta bideoak jasotzea izango da. Horretarako, ingurutik ordu eta erdiko ibilaldia egingo dute.

Sariak, parte-hartzaileentzat

Gazte *Instameet* izendatu duten ekimen horren zein #getxokirolak traolaren bidez, Getxoko kirolaren inguruan sortu den komunitate digitalak gazteenengana hurbildu nahi du. Gazte *Instameet*-en parte hartzeko, udal webguneko inprimakia bete beharra dago. Partaideen artean GetxoPhoto argazkilaritzako jaialdiaren hainbat opari zozketatuko dituzte. ◀

Info+: Getxo.eus/eu/getxo-kirolak

Getxo Atletismok bost domina irabazi ditu

Apirilaren 18ko eta 19ko aste akabua oso ona izan zen Getxo Atletismo Taldearentzat. Donostian, EAEko txapelketan, Iñigo Cillero nagusitu zen 3.000 metro lauetan. Durangon egindako Bizkaiko txapelketan, berriz, atleta getxoztarrek lau domina jaso zituzten: urrezko bi eta zilarrezko bi. Garaipenak Terese Lujak eta Iñigo Cillerok lortu zituzten, ehun eta mila metro lauetan, hurrenez hurren. Lujua birritan igo zen podiumera, jauzi hirukoitzean zilarrezkoa eskuratu baitzuen. Azkenik, Lucia Herrero bigarren sailkatu zen mailu-jaurtiketan. ◀

Magdalena Musonsek bost domina lortu ditu

Magdalena Musons Getxo Igeriketa Waterpolo Taldeko igelari argentinarrek bost zilarrezko domina lortu zituen Peruko Lima hiriburuan egindako Hego Amerikako Txapelketetan, hamalau urtekoen mailan. Apirilaren 15a eta 18a bitartean, kirolari brasildarren ostean onena izan zen Musons, honako modalitateetan: taldekako 4x50 eta 4x100 estilo, eta libre, bai nesken kategorian, bai mistoan; eta 50 metro libre indibiduala. Azken proba horretan, Victoria Izidro de Moura brasildarraren hiru ehunenetara gelditu zen Getxo Ikeriketakoak. ◀

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe,ilara eta azpilauki bakoitzean.

			5				4	
	4	6			9			
	8		3			5	7	
			2		7	3		1
				4	1			
8			9					4
	6			8			3	7
9	5	1						
7								

			8		7	2		
5				1			9	
8	6			2		4		1
		1		4		3		
								6
	1	9			2			4
			6	7			5	
			4			6		

Soluzioak

5	9	1	2	6	7	8	3	4
8	2	7	3	4	9	1	5	6
7	3	6	5	8	1	2	9	4
7	5	2	9	3	6	7	1	8
9	6	7	1	7	8	5	2	3
1	8	3	7	5	2	4	6	9
2	7	5	7	9	3	6	8	1
3	1	8	6	2	7	9	4	5
6	4	9	8	1	5	3	7	2

2	1	9	3	6	7	5	8	4
8	5	6	1	7	9	2	3	4
7	3	7	2	8	5	6	1	9
9	2	5	8	3	1	7	4	6
6	8	3	9	7	4	1	5	2
1	7	4	5	2	6	3	9	8
5	4	1	6	9	2	8	7	3
7	6	8	4	1	3	9	2	5
3	9	2	7	5	8	4	6	1

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Hainbeste tenperatura aldaketagaz gorputzak naberitza denbora kontua baino ez zen. Orain, lasaitasunez hartuko beharko zenuke osatu arte.



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Libre duzunean eguraldi kaxkara egiten du eta lanean jarduten duzunean eguzkia ikustera zigortuta zaudela ematen du.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Aspaldidanik hiru egun jarraian jai. Baina zoritxarez, daborduko ez dakizu zer egin hainbeste denbora librea duzunean.



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Zeozter egin beharko zenuke etxean metatzen dabilen paper eta trastu andanagaz, gorantza piloa egi-teak ez du askorako balio eta.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Maiatzaren Lehena langileon eskubideen alde kalera ateratzeko eguna da, badakizu. Ez dakizuna da izarak gainetik kentzeko indarra izango duzun.



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Hauteskunde kanpaina oraindino ez da hasi eta daborduko nazka-nazka eginda zaude. Bada, ez zaizu ezer falta!



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Jatekoetan zein edatekoetan mokofina zara. Baina kozinatzen ikasiko ez baduzu, kristoren dirutza gastatuko duzu jatetxeetan.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Inork gutxiak Eliza Katolikoaren mandatuak jarraitzen zituelakoan zeuden. Baina zure ingurukoak umeak lehen jaunartzea egiteko prest daude.



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Diru beharrean zeundenean bi abal eta interes astronomikoak eskatu zizkizuten. Akabuan, ezin lortu. Orain etxera igortzen dizkizute kreditu-eskaintzak.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Agian, pentsa zenezake armairuan sar litekeela mendi arropa ez den zeozter. Sikiera, estropeuz, eguzki itzela egingo balu, eskura izateko.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Inoiz ez dituzu erositako zozketa-txartelak begiratzten. Oraingo honetan, saria tokatu zaizulakoan zaude, baina... zein poltsikotan dago?

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
rgaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illeta kalea 1. ALGORTA

PINTXOAK

OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Erandio

ekologismoaren hastapenak



Milaka auzokideek kalera irten eta «gasaren» kontrako mobilizazioak egin zituzten 6oko hamarkadaren amaieran. Protestek hainbat egun iraun zuten, eta polizia frankista gogor oldartu zen manifestarien kontra; lagun bi hil zituen tiroz.

IKER RINCON MORENO

Hirurogeiko hamarkadaren amaieran, Erandio eta bere inguruek 150 kilometro koadro inguru hartzen zituzten, eta bertan barreiatuta zeuden burdingintza integrala, bi zentral termiko, burdin piritak erretzetik sulfurikoa ekoizteko hainbat lantegi, zementu eta beira lantegiak, eta horrek denak sortutakoa: milioi bat biztanle inguruko industria-sare urbanoa eta ibilgailuen trafiko ikaragarria. Industria horrek guztiak poluzio handia eragiten zuen, eta nekez har zitekeen arnasa inguru horretan. Egoera hain larria eta aldaezina zenez, 69ko uda akabuan, erandioztarrek kaleak hartu eta protesta gogorak egin zituzten hainbat egunetan, «Gasa kanpora» goiburupean.

Txetxu Aurrekoetxea erandioztarrak azaltzen duenez, 1940tik aurrera, Erandio «gainbehera» hasi zen hirigintzan. Industrializazio basatiak garapenerako plan ezberdinak ekarri zituen 50eko eta 60ko hamarkadetan, «Franco diktadorearen eta Neguriko burgesia handiaren aginduz». Hori horrela, bizitzarako ezinezkoak ziren aire, ur eta lurraren poluzio-indize larriak eragin zituzten Bilbo Handia izeneko inguruan. «Ibaian libreki igeri egitetik horretara ezin hurbiltzera igaro ginen 10 urtean», gogoratzen du Aurrekoetxeak *La lucha contra la contaminación. Los sucesos de Erandio 1969* liburuan; «intoxikazio larria jasateko arriskua zegoen ibaian».

Modu berean, airearen kalitatea ere biziki okertu zen inguruan. «Airearen kalitatea oso txarra zen, ezin genituen etxeko leihoak zabaldu, ezta aireratzeko ere», dio erandioztarrak.

Poluzio-indize altuak

Garai haietan ez zen aireko poluzio-neurriaren mugarik existitzen, ezta legerik ere. Hala ere, gaur egun

Medikuen kontsultak jendez gainezka zeuden Erandion. Eztarriko minbizi ugari gertatzen ziren, poluzioaren eraginez

indarrean daudenak kontuan izanda, askogatik gailentzen ziren mugak.


Egoera oso larria zen, eta medikuen kontsultak jendez gainezka zeuden. Erandion eztarriko minbizi-indize altua zegoen, «poluzioak eragindako minbiziak zirela uste genuen askok», dio Aurrekoetxeak. Gogoratzen duenez, garaiko enpresek sirena bat jotzen zuten, «udaleko pregoilariak balira bezala», karga kutsakorra botako zutela abisatzeko, eta horrela, auzokideek etxeko leihoak itxi eta eskegitako arropa kentzen zituzten. Poluzioa hain handia zen,

ezen «nylonezko galtzerdiak zulatu egiten zirela kaltetik ibiltzen zihoazela», gogoratzen du liburuaren autoreak. Aurrekoetxeak azaltzen duenez, honako enpresek kutsatzen zuten gehien: Dow-Unquinesa, Metalquímica del Nervion, Ercosa, Remetal, Indumetal eta Olarra, besteak beste.

Aurretiaz ere mugimendu saiakerak egon ziren arren, 1969an izan zen poluzioaren kontrako mugimenduak indar gehien hartu zuen urtea. Erandio-ko auzokideak kezkatuta zeuden poluzio atmosferiko horrek ongizatean eta osasunean zuen eraginaz. «Urteak generamatzen San Agustin festak antolatzen, baina urte horretako abuztuan modan jarri genuen abesti bat, jaiegun guztietan berbenaren amaieran abesten genuena», oroitzen du Aurrekoetxeak. Hala, «Fuera el gas, fuera el gas, que nos vamos a morir, que nos vamos a morir, ¡Fuera el gas!» doinupean, herriko plazan batutako ehunaka lagunek kalejira egiten zuten auzoan zehar. Ondoren «gasolinoan» Barakaldora abiatzen ziren, bertan estrofa bera abesteko. Garai haietan ez zuten poluzio berba ezagutzen, horregatik esaten zuten «contra el gas», azaldu du Aurrekoetxeak.

Lehenengo mobilizazioak

Poluzio ikaragarri horregaz amaitzeko lehenengo mobilizazioak 1962an hasi ziren. Orduan, Erandio Bilboko parte zen; auzo bat, alegia. Hori dela eta, erandioztarrek euren kezkak plazaratu zitzioten Bilboko Udalari behin baino gehiagotan. Hala ere, beti erantzun bera jasotzen zuten: isiltasuna. Ezinegon horren aurrean, Erandio-ko auzokideek Batzorde bat eratzea erabaki zuten, euren aldarrikapenak eta eskaerak antolatzeko. Batzorde horrek etengabe aza-



leratu zizkion ingurumenaren gaineko arazoak Jose Maria Dermit 1.ºgo Distrituko arduradun eta Bilboko Udaleko alkateordeari.

1969ko uda amaieran, Ibaizabal ibaiaren inguruan hainbat «itzultze termiko» jazo ziren, eta enpresen isurketakaz batera, poluzio izugarritzko egunak eragin zituen, irailaren 3an Astrabudua eta Alzaga inbaditu zuen ke-laino itxia, barbarako. Egoera horretan, Batzordeak mobilizazioak deitu zituen, hasiera batean Alzaga auzoan, ondoren auzoz auzo hedatuz eta handituz joan zirenak.

Urriaren 28an ehun pertsona baino gehiago batu ziren gaur egungo Udaletxeko plazan protestatzeko. Beranduago, Bilbo eta Areeta lotzen dituen errepidera joan ziren, eta bertan bidea ebaki zuten barrikada-

1977an Bilbo Espainiar Estatuko hiririk kutsatuena zela aitortu eta «atmosfera kutsatuko eremu» izendatu zuten

kaz, garaiko egunkariek deskribatzen dutenez. Horren aurrean, Polizia Armatuak manifestarien kontra kargatu zuen suzko armakaz. Horren ondorioz, bala galdu batek Anton Fernandez burua jo zuen, etxe-ko balkoitik protestari begira zegoela; Basurtuko Ospitalean 15 egunean koman egon ostean, hil egin zen. Hurrengo egunean, mobilizazio gehiago egin ziren. Garaiko prentsaren arabera, 1.500 pertsona inguru kalera irten ziren aurreko eguneko gertakariak salatzen. Hainbat enpresatako langileak euren lanpostuak utzi, manifestaziora gehitu ziren. Halaber,

Erandioko denda gehienek atek itxi zituzten egun osoan. Manifestariek itsasadarreko errepidea moztu zuten berriro ere, eta polizia frankistak, aurreko egunean egin zuen bezala, horien kontra kargatu zuen. Oraingoan, tiro batek Josu Murueta hil zuen, sabelean jota.

Amaieraren hasiera

Azaroaren 1ean, Industriako idazkariordea eta Bizkaiko gobernadore zibila batu ziren Erandioko airearen poluzioa saihesteko neurriak bilatzeko eta adosteko. Hala ere, Aurrekoetxearen arabera, agintari frankistek «estutasunetik atera nahi zuten, gizartea engainatuz». Izan ere, gogoratzen duenez, Batzordearen eta enpresariaren arteko bilera batean, neurri zuzentzaileak jarriko zituztela agindu zieten: «ez kezkatzeko esan ziguten, tximinien irteeren aurrean zikloiak jarriko zituztela agindu zuten». Erandioztarrak dioenez, neurri horiek ez dira egokiak arazoari aurre egiteko, «alde batetik, zikloiak partikulak banatzeko direlako, eta, bestetik, errendimendu oso txikia dutelako».

1977an, Daniel de Linos Ingurumen eta Lurralde Ekintzaren zuzendari orokorrak Bilbo Espainiar Estatuko hiririk kutsatuena zela aitortu zuen. Urte horretan bertan, abenduaren 16an, inguru horretako hemeretzi udalerritan «atmosfera kutsatuko eremua» ezarri zuten. De Linosen arabera, garaiko sistema produktiboak eraldatzeko eta erregai arinagoak erabiltzeko beharra zegoen, eta horretarako garaiko 15.000 milioi pezeta behar zituztela uste zuen.

8oko hamarkadan, Erandiok desanexioa lortu eta inflexio-puntu batera heldu ziren. Ordutik aurrera poluzioaren indizeak hobetzen joan ziren. ◀



Anton Fernandez (goian) eta Josu Murueta erandioztarrak tiroz hil zituen polizia espainolak.



Flashback

Erandioztar gazteak Urbian, 1955-56

Erandioko Tiples Abesbatzaren (sopranoen abesbatza) kide ziren gazte kuadrilla honek uda herritik kanpo emateko ohitura zuen, 50. hamarkadan. 1955ko edo 1956ko udaldia Urbian eman zuten, Arantzazu gainean eta Aizkorriren magalean. Argazkian, orduan egindako Zegamako lagunak agertzen dira erandioztarrak; euren atzean II. Mundu Gerrako kanpin-denda bat ikus daiteke.

Argazkian: ① Xabier Zabaleta (Atletico Madrileko jarraitzaile batek hildako Aitor Zabaletaren aita), ② ③ Aitor Zabaletaren aitita-amama, ④ Iñaki Zabaleta (Aitor Zabaletaren osaba), ⑤ Juan Zabaleta (heriotza-zigor bi aldean, erbestealditik Erandiora etorritako apaiza), ⑥ Juan Mari Lechosa (apaiza), ⑦ Txetxu Aurrekoetxea, ⑧ Jose Luis Lechosa (GB), ⑨ Maxi Espiniella (GB), ⑩ Jesus Mari Marina, ⑪ Jose Ignacio Esnal, ⑫ Izagirre, ⑬ Jesus Mari Izagirre, ⑭ Jon Laradogoitia, ⑮ Javi Larreategi, ⑯ Juan Luis Elorduy, ⑰ Asla.



© TXETXU AURREKOETXEA URKIXOK UTZITAKO ARGAZKIA



Uribitakora

TESTUA

Josu Landeta Egurrola

DOINUA

Urrezko isuri eder gozoa

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Hareatzatik gora

Gogoan daukat txikerretako denbora urrun hare(e)tan, zelan gozatzen gendun algaraz itsaso ondoko hareetan. Gaztelu eder bat altxatzen gendun mila eta bat koloretan, inozentzian gengozan eta ardura gitxiz olgetan. Poz-pozik bizi ginen hareia ederra zala pentsetan, baina benetan dantzan genbiltzan heriotzaren errekan.

Hareatzaren ordeka latzak izena dau basamortu, hor inoiz bere ez da loratzen ez baso eta ez ortu. Sarritan hantxe gure egarria asetzea ezin lortu ta gure patu makurra ahazteko egiten gara mozkortu. Ilusiozko gaztelu horretan izpi bat ahal jaku sortu bizibidean hareia legez bihurtu ez gaitezen gorpu.

Gazteluaren dorrera igonda, hareatza da nagusi?. Beitu harago, zer gauza ederra, dana ez da hain itsusi! Urrun begira jarri ezker, zein garbi ahal da ikusi alor joriak badagozela ondoan ura eta guzi. Itxaropenaz harantza goaz, eremu antzutik ihesi, txikerretan lez jantzi alaiena gura dogulako luzi.



HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzio-burua: Irantzu Sagaminaga

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Publizitatea: Erika Martinez

Kudeaketa: Ziortza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95 CC-BY-SA

Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:

